



ARGIA



MARTXOAK 8

***Faxismoaren aurka,
feminismoa kalera***

2.907 | 2025 / 03 / 02 | 4 €

24-29. orrialdeak



***“Bollerismoa’
planteatzen den
erak zalantzak
sortzen dizkit”***

14 | IZARO BILBAO



***“Krisi ekosoziala
aukera bezala
ikusten dut”***

30 | FERNANDO VALLADARES



***“Balutxeak dira
munduko herririk
exekutuena”***

36 | KARLOS ZURUTUZA




egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak, **Eli Pagolak** gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak, **Mattin Jauregik** jasoak landatik.

Bi astean behin asteazkenetan argia.eus-en eta plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Martxoak 5

Garai kontserbak

baserri-lantegian egon gara, Ana de la Mazarekin

Martxoak 19

Euskal Herriko banana, mango eta marakuiak probatu nahi?

Igor Letek ekoizten ditu

Apirilak 2

Ezkurra, jaki antikapitalista nola bildu eta prestatu

Asier Bastarrikaren eskutik

Apirilak 16

Baserrietako erremintak

aztertu ditu Aran Sagarzazuk

Apirilak 30

Artaldean sartu gara, artaziak eskuan

Joseba Attard mozailearekin

Maiatzak 14

Argindarren kablei jarraika

Alvaro Camposekin



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: DOM

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | ANE LABAKA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 40 | GORPUTZ HOTSAK
- 42 | KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

36 | **KARLOS ZURUTUZA**

kazetaria elkarriketatu du Xabier Letonak. Balutxeei buruz idazten zuen 2009an ARGIAN, eta iaz liburua argitaratu zuen. Azaldu du munduan zein gutxi informatzen den balutxeei buruz, bizi duten egoera zaila, elkarriketatu izateak heriotza esan nahi duela haientzat...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Supermerkatuko ur natural botilak ez genituen uste bezain naturalak

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | IZARO BILBAO

“Bertsolaritzan 'guayismo' pila bat dago eta ez bakarrik goi-mailako bertsolarien artean”

Amets Aranguren

24 | GIZARTEA | MARTXOAK 8

Faxismoa borrokatzeko feminismitik indarrak batzeko deia

Leire Artola

30 | INGURUMENA | FERNANDO VADALLARES

“Oparotasuna zer den birdefinituta, ulertuko dugu zer dugun irabazteko”

Urko Apaolaza

48 | KULTURA | ADIMEN ARTIFIZIALA ZINEMAN

Legezkoa bai, baina bidezkoa?

Gorka Peñagarikano


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernu**

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel García,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiara

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enpreekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



Apartheid 'made in Euskal Herria'

2024ko uztailaren 19an, Nazioarteko Justizia Gorteak ebatzi zuen estatu eta enpresa orok ez dituztela lagundu behar Israelen okupazioa eta kolonizazioa, aurretik Genevako Konbentzioak eta Nazio Batuen zenbait ebazpenek esandakoaren ildotik. Horregatik ere da lotsagarria CAFen jardura Israeliek okupatutako lurretan. Bost urteko protesten ondoren eta nazioarteko legediaren kontra, tranbia lineak eraiki, hornitu eta kudeatzen ditu Jerusalemgo hiri okupatuaren eta inguruko kolonia berrien artean, indar okupatzailearen populazioaren mugikortasuna eta hazkundera errazteko. Horrek, bidegabea

izateaz gain, indarkeria gehiago sortzen du. Beasaingo multinazionala ez da bere harrokeriatik mugitzen, eta sistema genozida bati laguntzeari laga baino, nahiago du ahaleginak bere burua zuritzera bideratzea, kalitatezko ziguiluak ordainduz eta "mugikortasun iraunkorra" eta "erantzukizun soziala" salduz. Eusko Jaurjaritza CAFeko akzioduna da, eta Nafarroako Gobernuak laguntza ekonomikoak ematen dizkio. Horri "aberastasuna sortzen" laguntzea deitzen diote. Baina ekuazioa are sinpleagoa da: okupatzaile bortitzak dirua dauka, menpeko txiroak ez. Eta giza eskubideak, besterik gabe, ez dira existitzen.

CAF-ek Nafarroan duen sukurtsalaren (Iruñeko Orbital) aurrean protesta egin du BDZ ekimenak larunbatean. **IÑIGO URIZ / FOKU**

AXIER LOPEZ



EL SAUTO OPINION

La empresa española CAF
frente a la Corte
Internacional de Justicia

Después de la decisión de la Corte Internacional de Justicia, la empresa CAF continúa operando a pesar de haber sido condenada por el Tribunal de Justicia de las Naciones Unidas por su papel en el conflicto de Euzkadi.



Emakume batek salatu du Ertzaintza bere aurka oldartu ostean ZIUan amaitu zuela, konorterik gabe

XABIER LETONA BITERI

Karen Daniela Ágredok otsailaren 2ko goizaldean jasan zuen eraso, Donostiako Manterola kaleko diskoteka baten atarian. Hainbat testigantzen arabera, konorterik gabe egon arren berari kolpeka jarraitu zuen ertzain batek.

ETBk argitara emandako elkarrizketan, honela kontatu du Ágredok berak: “Chanel diskotekan nengoen nire bikotekidearekin eta lagun batzuekin urtebetetze bat ospatzen. Etxera gindoazenean, nire bikotekidea diskoteka kanpoan mutil batekin eztabaidatzen hasi zen. Arazo larriagoak saihesteko ni bien artean sartu nintzen.

Une horretan ertzainak pasatu ziren eta nire senarrari eskuburdinak jarri zizkieten. Berak ez zuela ezer egin oihukatu nuen nik. Borra batekin jo ninduten eta esku burdinak jarri zizkidaten. Haietako batek mugikorra kendu eta lurrera bota ninduen. Une horretan konortea galdu nuen. Ez dakit nola igo ninduten Poliziaren autora.

Ziegan esnatu nintzen eta pixa gainean egin nuela ohartu nintzen. Ezkerreko oina ezin nuen mugitu eta eskuinekoarekin atea jo nuen laguntza eskatzeko. Agente bat sartu eta eskatu zidan zutitzeko deklarazioa hartzeko, horrela atera ahal izateko. Nik ezin nuen ia hitz egin, eta esan nion ez nuela ezkerreko aldea sentitzen, ez nekiela zer gertatzen zitzaidan. ‘Ados –erantzun zidan agenteak– orain nator berriro’.

Beste polizia bat sartu zen ikustera kontatzen ari nintzena egia ote zen. Esan zidan zortzi ordu neramatzala lurrean eta deklarazioa hartzeko jaiki egin behar nintzela, nik esan nion ezin

Oraingoz bederen, atxiloketan parte hartutako ertzainek beren lanpostuetan jarraitzen dute

nuela, ezkerreko aldea ez nuela sentitzen. Esan zidaten mediku bati deituko ziotela eta 30-40 minutu zain egon ondoren, medikuak ezin zuela etorri. Tarte batera, hiru polizia etorri ziren, atera eta ospitalera eraman ninduten.

Medikuak esan zidan iktusa izan nuela, buruko isuria ezkerrean. Mugikortasuna galdu dut eta bi ebakuntza egin behar dizkidate. [Kontakizunean atxiloketaren unera itzultzen da] Nire bikotea

ikusita oihuka hasi nintzen bai, aztoratuta nengoen, baina nik ez nion eraso egin poliziari. Neurritz kanpo jokatu zuten. Ez nuen ezer txarrik egin haien aurka. Nahi dudana gauza bakarra justizia egitea da eta dena argitzea”.

HIRU IKERKETA ZABALIK

Ágredori egindako elkarrizketaz gain, ETBk erakutsi du kaleko segurtasun kamera batek grabatutako bideo bat eta hartan atxiloketaren hainbat sekuentzia ikusten dira. Bideoan, dena den, ez da grabaketa osoa ikusten, kamerak hartu zituen moduan, baizik eta editatuta. Horietan bi une antzematen dira argi samar: batean, emakumea lurrean eserita eta eskuburdinekin ageri da, negarrez, eta beste batean erdi etzanda eta noraezean egotearen itxurarekin. Ondoren, ertzainek autoan sartzen dute eta horrek hiruzpalau agentera aski lan ematen die, pentsa liteke konortea galduta edo erdi galduta duen emakume batekin ari direlako.

Ágredok eta bere bikotekideak salaketa jarri dute epaitegietan eta Segurtasun sailburu Bingen Zupiriak azaldu du hiru ikerketa irekita daudela, eta horiek argitu arte ezin dela jakin ertzainek ondo edo gaizki jokatu zuten. Oraingoz bederen, atxiloketan parte hartutako ertzainek beren lanpostuetan jarraitzen dute.

Gertaerak ezagutu dira bikoteak hedabideetan kontatu ondoren, pasatu zirenetik hiru astera. Zupiriaren lehen azalpen ofiziala otsailaren 20an etorri da, EH Bilduk legebiltzarrean egindako galdera bati erantzunez. Orain, Zupiriak berak eskatu du premiazko agerraldia Eusko Legebiltzarrean, behar diren azalpenak emateko. ●



FAMILIAK UTZIA ETA NAIZ-ETIK JASOA

MELOI SALTZAILEA

Kongo askatu!



JUNE FERNANDEZ

Fermin Muguruza jarraitzen duzu sareetan. Marilgo kontzertuko bideo bat ikusi duzu bere kontuan: dantzari batek “Kongo askatu!” oihukatu du, bandera esku artean. Haren profila bilatu duzu: @c.kumaaa. Bilboko manifestazioaren deialdia zabaldu du. Ez zara joango, laneko afari bat daukazulako (hala ez balitz, lehenetsiko zenuke?). Iru-diak ikusi dituzu biharamunean. Jende oso gutxi joan da, gehienak beltzak. Hurrengora joatea agindu diozu zeure buruari.

Neska beltz batek hartu du megafonoa Plaza Biribilean. Quinndy dela esango zenuke, Muguruzaren birako beste dantzari afroeskalduna, nigeriar jatorriko ekintzaile antiarrazista. “Ukraina edo Palestina-gatik duzuen enpatia ez da Kongogatik duzuen berbera. Urtero erosten duzue telefono bat; aldiz, Kongon milaka pertsona hiltzen dituzte urtero. Hamarkadak daramatzagu sufritzen, eta Europak ez du ezer egiten, isilik dago, nahiz eta Europak dituen gauza mordoa Afrikari zor dizkion. Afrika barik, Europa ez da deus”. Txaloak. *Story*-a partekatu duzu.

Erabaki duzu Kongori eskainiko diozula ARGIAko zutabea, nahiz eta informazio gutxi gorde duzun “Munduko gatazka kronifikatuak” zure memoriako karpetan. Nor da Kongoko presidentea? Eta Ruandakoa?

ARGIAko hemerrotekako azken artikuluak bilatu dituzu: “Ehunka emakume hil eta bortxatu dituzte Kongoko Errepublika Demokratikoko espetxe batean”. “Mendebaldeak Kongon dituen hainbat enbaxada jo-mugan hartu dituzte M23ren kontrako protestetan”. “Kongo eta kobaltoa. Zertarako gaude prest konektatuta jarraitzeko?”

Hamarkadak sufritzen. “Mendebaldeak normalizat jotzen du gure sufrimendua”. Nicole Ndongala errefuxiatu eta ekintzailearen hitzak dira, *Pikara Magazinen*. Ezin duzu ukatu hori dela Afrika gure (zure) iruditerian: gosea, biolentzia, pandemia, emigrazioa.

Errealitate bidegabe batekiko nahikoa enpatia garatzeko baldintzak gertutasuna eta identifikazioa dira (zerorrek asmatutako teoriaren arabera). Nikaraguak min egiten dizu, urteko egonaldia egin zenuelako han eta zure lagunak erbesteratu direlako. Baita Palestina ere, noski, euskaldun ezkertiarra zaren aldetik.

Aitzakia pobrea da esatea ez duzula halako gertutasun edota identifikazio biderik Kongorekiko. Urteak daramatzazu irakurtzen erantzuleak oso hurbil dituzula, are gehiago odolez blaitutako harrapakina.

MacBook zaharra laztandu duzu. Egingo al diozu Apple-ri boikota, HPri nola? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



HELarekin, akaso



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Jakina da lan ikuskariak falta ditugula geurean. Hala ere, azken egunotan datu argigarriak ematea lortu dute: lan ikuskaritzaren arabera, EAEko enpresen %64ak ez du ordutegiaren kontrolean legedia betetzen. Era berean, lehendakariordeak gaitzetsi du, absentismoaren eta oinarrizko soldataren inguruan kexatzen aritzen diren bitartean, enpresek ez dituztela lan eskubiak, araudiak eta osasun eta segurtasun neurriak betetzen. Ez da ohikoa gobernukide baten ahotik patronalaren aurkako hitzak entzutea, ez horixe.

Azken asteotan komunikabideetan protagonismoa irabazi du patronalak, ezin dugu hori ukatu. Aspaldiko adostasun zabalarekin eskatu dute sindikatuek gutxieneko soldata igotzea, eta ezohikoa den argazkia eskaini dute. Begiak itxi, eta saiatu naiz mahaiaren bueltan imajinatzen patronala eta sindikatuak. Alde batean trajeak, gizonak eta gaztelania, ingelesezko hitzak tartekatzen. Beste aldean, kaleko arropa, ziur aski sindikatuen pinen bat tarteko, eta emakumeak eta euskara presentzia irabazten. Astiro, astiroegi.

Baina ez, Confedebaskek mahaiari uko egin dio, Nafarroako patronalak egin bezala. Sindikatuekin seriozki negoziatzeko beldurragatik, akaso. Milaka familien ongizatea ahaztuta, ziur aski. Kapitalaren ekonomian kapitala dagoelako erdigunean, eta ez bizitza. Ez bizitzako oinarrizko elementuak, ez duintasuna, ez segurtasuna, ez ekitatea.

Alderdi politikoengan jarri beharko dugu berriz ere fokua, Herri Ekimen Legegilea onartu eta oinarrizko soldata duina errealtate bihur dadin. Hor ez du patronalak beto eskubiderik, alderdi politikoek erakutsiko digute zein den beraien hautua: Martxoaren 8an ikusten dugun itxurakeriaren gisakoa, edo benetakoa neurriak hartzea. Funtsean, arrakalak eta desorekak hautu politiko eta sozioekonomikoak baitira, ikuskariak ez izatea erabaki politikoa den gisara. ●



URKO APAOLAZA / ARGIA CC-BY-SA

Lanbroa guretzat, mendiak eurentzat

URKO APAOLAZA AVILA

Han eta hemen perretxikoen gisan agertzen ari diren eoliko proiektu guztiekin gertatzen den bezala, Urumeako mendietan Repsol eta Endesa multinazionalak egin nahi duten azpiegitura erraldoiaz apenas daukagu informaziorik. Kasik ezer ez da publiko, eta administrazioetako tramite-burokrtikoen labirintoan, lanbroean galdurik aurkitzen du batek burua. Baina horrek ez du esan nahi enpresak lanean ari ez direnik.

Egunotan jakin dugu Repsolek errekurtsua jarri duela Eusko Jaurlaritzaren Industria sailean Endesaren beste proiektu baten kontra; EH Bilduko parlamentari Ander Goikoetxeari bidalitako erantzunean, Mikel Jauregi sailburuak baieztatu dio “aztertzen eta ebatzen” ari direla. Bi multinazionalak lehian ari dira Adarra eta Mandoegi arteko paraje menditsu bezain aberatsa berriztagarriekin industrializatzeke. *El Diario Vasco* egunkariak azaldutakoaren arabera, Repsolek Endesari egozten dio “iruzurra” egitea: proiektua bost zatitan banatu du, Hernaniko azpiestazio elektrikorako sarbidea lortzeko. Zenbat horrelako egin ote dituzte euren artean? Jokoan dagoena argi uzten du horrek behintzat.

Urumeako mendietan egin nahi dutena Euskal Herriko zentral eoliko handiena litzateke. Berriz ere zeharka jakin dugu hori, prospekzio arkeologikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak Aranoko Udalarari bidalitako dokumentaziotik. Repsolek tamaina handiko 15 aerosorgailu, 28 kilometroko eta sei metro zabaleko bidea eta 68 dorre elektriko izango litzuzkeen 21 kilometroko ebakuazio-linea eraiki nahi ditu natur gunean. Eta bitartean, administrazioa ere lanean. Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialeko azken bertsioan, Adarra eta inguruko mendien harri gaitasuna maila “baxua” izatetik “ertaina” izatera pasa da, gauetik goizera.

Energia garbiak direla diote, baina gauean ardi beltza aurkitzea bezain zail jartzen dute beraiei buruz ezer jakitea. Eta *Vidas irrenovables* dokumentaleko Francisco Vaquerok ARGIA n esan bezala, “enpresen eta administrazioen aldetik egoten den gardentasunik ezak sortzen ditu herrietako gatazkak”. Arano, Goizueta eta Hernaniko herritarrek Urumeako Mendiak Bizirik plataforma jarri dute martxan, eta hasi dira antolatzen. ●

17.000

euro irabazten dituzte hilero 11 medikuk, Osasunbidean. Egoera hori ikertzeko eta zuzentzeko eskatu dio EH Bilduk Nafarroako Gobernuari. UPNk eta PPK bat egin dute eskaerarekin, eta Osasun Departamentuak urtebete du ikerketa gauzatzeko.

2035

urterako Monte Perdido glaziarra desagertuko litzateke, klimak egungo joerari eutsiz gero. Baldintza meteorologikoak hobegoak balira ere, ia ezinezkoa izango litzateke berreskuratzea, diote adituek.

15

egun eta 10 hitzordu, gurasoak euskararen erabileraz eta irakaskuntzaz sentsibilizatzeko ekimena antolatu dute Hendaia, Urruña, Donibane Lohizune eta Ziburuk, martxoaren 15etik 30era.

“Azkenean libre naiz, gaurkoa egun ederra da”

LEONARD PELTIER

49 urte preso pasa ondoren, libre utzi dute Leonard Peltier AEBetako ekintzaile autoktonoa. Amerikako Indiar Mugimenduko militantea da Peltier, eta bi polizia hiltzea leporatuta atxilotu zuten arren, Peltierren errugabetasuna zalantza izpirik gabe frogatzen duten 10.000 folio baino gehiago badira, baina klasifikatuta jarraitzen dute.

2025-02-19



“EUSKARAZKO MURGILTZEA ERASOTZEN ARI DIRA PAI EREDUAREN ZABALKUNDEAREKIN”

STEILAS

Ingeles orduak handitu eta euskarazkoak murrizteko foru aginduaren kontrako helegitea aurkeztu du sindikatuak.

EUSKALERRIA IRRATIA (2025-02-18)



“Espazio guztietan eta erabilera guztietarako galiziera berreskuratze mugimendu geldiezina hasi da”

QUEREMOS GALEGO PLATAFORMA

Milaka lagun elkartu dira Galiziako hiriburuan, hizkuntza politika berri bat aldarrikatzeko. 2025-02-23

TEKNOLOGIA

Suaren inguruan



DIANA FRANCO EGUREN

Gizakiok berezkoa dugu parte garena sentitzeko beharra. Parte izateko modu hori jasotako hezkuntza, ingurua... formateatzen joaten da.

Identitateak ezinegon asko sortzen du gizakiongan. Batzuetan, banaketak ere eragiten ditu, ezin dugulako jasan beste baten identitatearen baitan dagoen mundu ikuskeran ulertezinak suertatzen zaizkigun eta gure bizitzak gidatzen dituzten balioetatik asimetrikoak diren jokabideak. Zorritzarez, eremu digitalean ardur horiek partekatzen dira, eta aniztasuna arazo gisa planteatzen da: eztabaidarako eta hausnarketarako lekuak suntzitzen doaz, haustura bilatzen da.

Mundua ulerterrazagoa zen txikia nintzenez (ez horregatik hobea), aniztasun gutxi zegoelako, denok antzeko mundu-ikuskerara partekatzen genuelako. Egun, tokikoa ere anitza da, eta bizi ditugun lurraldeetan gorputz anitzek espazio bera partekatzen dute. Antzeko beharrak ditugu (elikadura, babes...) baina bihotz guztiak ez dira parte sentitzen. Pertsona asko bakardadean murgiltzen da eta mundu berriak sortzen dituzte, isolaturik ez geratzeko. Hainbatetan, ordea, munduen arteko elkarriketak ematen dira, beti dagoelako entzuteko prest eta ikasteko irekia dagoen jendea, zarataren gainetik hegan egin dezakeena.

Asteburu honetan, txitxi-burduntzi (Durangaldean) eta txitxi-burruntzi (beste hainbat lekutan) ospatu dugu herri ugari-tan. Gure ikastetxean, bizitzaren errealitatea kudeatzeaz leporarte dauden gurasoek antolatuta dute. Ikastetxean, azken urteetan errealitate berdinean garen baina mundu ikuskera ezberdinak ditugun pertsonak ospakizunean parte hartzeko modua asmatu da: komunitate musulmanak, txorizoak beharrean oilasko eta txahal saltxitxak jarri ditu sutan. Txitxi-burduntzia txerriaren hilketari lotuta sortu bazen ere, oparotasun momentu bat partekatzea zen ospakizunaren muina. Horrela jarraituko du izaten txorizo nahiz oilasko saltxitxekin, edota saltxitxa beganoekin. Suaren inguruan harreman aukerak zabaldu dira gure ikastetxean. ●

NAZIOARTEA

Eskuinera biratu du Alemaniak

✚ GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Inkestek iragarri bezalaxe, eskuinera egin du Alemaniak. Boto-emaileek gogor zigortu dute alderdi sozial-demokrata (SPD), herrialdearen ekonomia eta herritarren bizi-baldintzak nabarmen okertu diren aldian, bereziki energiak eragindako prezioen igoeraren testuinguruan. Inoizko emaitzarik txarrenak lortu ditu Olaf Scholz kantzilerraren SPD alderdiak, baina litekeena da gobernuan sartzea hauteskundeak irabazi dituen CDU/CSU demokristauekin. Izan ere, Alemaniako hauteskundeetako garaile berriak, Friedrich Merz zerrendaburuak, dagoeneko esan du ez duela bigarren gelditu den eskuin muturraren atea joko.

Azken 35 urteetako parte hartzerik handiena izan da joan den otsailaren 23ko hauteskundeetan: 59 milioi pertsonak zuten bozkatzeko aukera eta %84k hala egin dute. Botoen %28,5 jaso ditu CDU/CSU koalizio demokristauak, duela lau urte baino lau puntu gehiago, eta bigarren geratu da Alemaniari Alternatiba (AfD) eskuin muturra, %20,7rekin, aurreko emaitzak bikoiztuta. Hirugarren SPD sozialdemokratak, %25,7tik %16,4ra jaitsita. Berdeek ere kolpea jaso dute, %14,8tik %11,6ra. Eta SPDren botoez praktikan balitu dena Die Linke ezker-rra izan da, %4,9tik %8,7ra igota.

ESKUI MUTURRAREN IGOERA

Iragarria zen. Halaxe ikusi zen iraillean, Alemania ekialdeko bi eskualdeetan hauteskundeak egin zirenean.


Turingian, hiru bototik bat jaso zituen AfDk, eta Saxonian, ozta-ozta, CDU gailendu zen. Bigarren Mundu Gerraz geroztik, estreinako aldia zen AfDk eskualde mailako hauteskundeak irabazten zituela.

Beldurra ekialdetik mendebalderantz hedatzen joan da azken hilabeteetan, Olaf Scholz kantziler sozialdemokratak ultraeskuinaren diskurtsoari eutsi eta herrialdearen muga guzti-guztietan polizia-kontrolak ipintzeraino.

Are, urtarrilaren hondarreen, ordurako inkestek CDUren eta AfDren igoera eta SPDrekin kolpea iragartzen zutenean, CDUko demokristauek AfDrekin batera bozkatu zuten Alemaniako Parlamentuko bozketa batean, migratzaileen aurkako ebazpen ez-letesle batean. Eskuin muturrekoa ez zen jendea asalduta zuten horrek, eta protesta jendetsua antolatu zen Berlinen; 160.000 pertsona baino gehiago manifestatu ziren eskuin muturrari "suhesia" ipintzea aldarrikatzeko. Hala, CDUK hitzeman zien bere boto-emaileei ez zuela gobernurik osatuko AfDrekin -baldin eta, jakina, alternatiba erreale gehiago baldin bazituen-; halaxe berretsi du hauteskundeetako emaitzak jaso eta berehala. AfDk bere boto-emaileei esan die "lasai" egoteko, "igoerarekin jarraitu eta hurrengo hauteskundeak irabaziko ditugulako".

Ondorengo bi grafikoetan argi ikusten da nola ari den AfD ekialdetik mendebaldera zabaltzen. ●

Alemaniako hauteskundearen mapa. Ezkerrean, 2021eko emaitzak; eskuinean, 2025ekoak. **Gorria** SPDrena da, **beltza** CDUrena eta **urdina** AfDrena.



“Adimen artifiziala horrela erabiltzea kazetaritzari eta irakurleari iruzur egitea da”

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Diarrio de Noticias de Álava (DNA) egunkariko langileak sinadura greban daude, eta aspaldi ari dira beren lan baldintza “miserableak” eta horiek kazetaritzaren kalitatean duten eragina salatzen. 2013tik soldatak izoztuta dituzte, eta ordutik erosahaltenaren %30 galdu dutela kalkulatu dute. Jakinarazi berri dute DNAk adimen artifizialarekin egindako albisteak argitaratzen dituela, *clickbait*-a helburu, eta irakurlea egiletzaz ohartarazi gabe. 2024an 337.500 euro jaso zituen DNAk Jaurlaritzaren eskutik, adimen artifizialaren arriskuei aurre egiteko. Enpresa Batzordeko kide Borja Lazkano Herre-rorekin hitz egin du ARGIAk.

Otsailaren 18an ohar bidez jakinarazi zuen DNAko enpresa batzordeak hedabidea “hainbat informazio digital” argitaratzen ari dela “ChatGPT moduko erremintekin”. Hurrengo egunean, hilak 19, sare sozialetan salatu zuten “gaur bertan” argitaratutako albiste bat aztertu zutela “hiru detektore” erabilita: “frogatzen dute informazioaren %90 baino gehiago AA bitartez sortu dela”. “Adimen artifiziala horrela erabiltzea kazetaritzari eta irakurleari iruzur egitea da”, kritikatu du Lazkanok. Batetik, “kazetaritzaren etikaren” aurkakoa da, “asmo bakarra webgunea albistez bete-



DNA-KO ENPRESA BAZORDEA

tzea da, eta bisita kopurua edozein modutan handitzea”. Bestetik, irakurleari “iruzur” egiten zaio. Antzeman dituzten albisteak kazetari batek sinatuta daude, batzuek ohartarazten dute AAren erabileraz, baina beste batzuek ez. “Momentuz soilik *clickbait* albisteak dira horrela sortutakoak, ez albiste serio edo landuak”, zehaztu du Lazkanok. *Clickbait* deitzen zaio kalitate txarreko edukari, erabiltzaileek sakatu eta partekatu dezaten propio sortuak, diru sarrerak handitzeko. “Gaurko ogia da, baina biharko gosea”, dio kazetariak. Langileen kalkuluen arabera, udaz geroztik DNAren bisita kopurua %30 inguru jaitsi da. DNAren irakurleak AAren erabilerarekin “atsekabetuta” daudela dio enpresa batzordeko ordezkariak, horrela jakinarazi dietela langileei ahoz eta idatziz.

Enpresaren zuzendaritzan, aldiz, horrek ez du kezkarik sortzen, diotenez.

AAren erabilera hori sustatzeko uena ere kritikatu dute langileek. 2024ko uztailan Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak hedabideentzako zazpi milioi euroko dirulaguntza onartu zuen. “Laguntza horien helburua da eguneroko informazioaren sorreran, lanketan eta argitalpenean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa minimizatzea eta desinformazioari aurre egitea”, azaldu zuen Jaurlaritzak. DNAko zuzendaritzaren praktika justu horren kontra doala dio Lazkanok: “Ba al dago kazetariak AArengatik ordezkatzeko baino eragin negatiboagorik?”. Edonola dela, diru partida horretatik 337.500 euro jaso zituen DNAk Jaurlaritzaren eskutik. ●

MOTZEAN

Lorpen baten berri eman du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak. Nafarroako Museoa Irulegiko Eskua bisitzeko azalpenak gaztelania hutsean zirela-eta, kexak utzi dituzte herritarrek, eta eragina izan du: duela gutxi, museoa bisita gidatuak euskaraz eskaintzen hasi da.

Vox ultraeskuineko alderdiak karpa jarri zuen Erretereria-Oreteran, baina ongi etorria ez dela adierazteko, kartel eta musika antifaxistez inguratu zituzten. Aurreko egunean, manifestazio jendetsua egin zuten herrian, “askatasunaren alde eta faxismoaren aurka”.

Gasteizko Salburuako futbol txapelketan “gaztebandetako kideen presentzia posiblea” argudiatuta, sarekada egin zuen Ertzaintzak otsailaren 16an. Gasteiz Antirrazistak eta GKS-k salatu dutenez, 44 pertsona atxiki, idenfitikatu, miatu edota kolpatu zituzten.

Hirigintza araudia malgutu eta etxebizitzaren eraikuntza sustatzeko dekretua sinatu du Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza berrien promozioak ez atzeratzea da Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartu duen dekretuaren helburu nagusietako bat.

NESTLÉ ETA SOURCES ALMA ESKANDALUA: SUPERMERKATUKO UR NATURAL BOTILAK EZ GENITUEN USTE BEZAIN NATURALAK

Ur kontaminatua ur mineral eta ur natural gisa saltzen aritu dira urte luzeetan Nestlé eta Sources Alma multinazional frantsesak. Legez kanpoko filtrazioak, iturburuko ura txorrotakoarekin nahasi izana... kontsumitzaileen osagarria bigarren mailan jarri eta bere interes ekonomikoak lehenesteko hautu argia egin dute batak zein besteak. Eskandalu hori argira ekarri du

Le Monde eta Radio France komunikabideek bideraturiko ikerketak. Are gehiago, estatu-eskandalua ere badela dirudi: Frantziako Gobernarekin eskuz esku bideraturiko lege aldaketak eta erabakiak egon direlako. "Iruzurra" argitzeko, salaketa jarri du Foodwatch elkarteak eta ikerketa abiatu du Parisko Auzitegiak otsailaren 13an.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Nestlé eta Sources Alma: bi izen, bi multinazional, baina bien esku artean supermerkatuetako ur botila kasik guziak: Perrier, Hépar, Contrex, Vittel, San Pellegrino, Acqua Panna, Cristaline, St-Yorre, Vichy Célestins, Mont Blanc eta beste anitzez gehiago. Ura supermerkatuan erosten duen orok du segur aski bi etxe horietako ura edaten. Beste gisa batera erranda, azken urteetan ura supermerkatuetan erosten ariturikoa segur aski ur kontaminatua edaten aritu dela, ustez eta, hain justu, txorrotako ur dudazkoa alde batera utzi eta ur mineral sanoa edaten zebilela.

Iazko urtarrilean *Le Monde* eta Radio France komunikabideek bideraturiko ikerketak argira ekarri digu ur kontaminatua saltzen aritu direla, kutsadura kontrolak faltsututa. Uraren kasuan debekatuta diren mikrofiltraziorako sistemak –filtro ultramoreak eta ikatz aktiboak– baliatu izan dituzte urte luzeetan.

Salaketa jarri zuen irailean elikagai osasuntsuen aldeko borroka eramaten dabilen Foodwatch elkarteak, eta otsailaren 13an ireki du Parisko Auzi-

tegiak auzibidea, "iruzurrik" egon ote den argitzeko. Paraleloki, Frantziako Senatuko ikerketa batzarra ere dabil afera ikertzen.

Alma Sources enpresaren langile bategen 2020 hastapenean pausatutako iruzur abisua dugu guzi horren oinarrian. DGCCRF Lehiaren, Kontsumoaren eta Iruzurra Zigorrezko Zuzendaritza Nagusiak ikerketa abiatu eta laster azaleratu zen eskandalua, orduan icebergaren punta bakarrik ez zena: "Burdin sulfato eta karbono dioxido industriak injektatzea", "baimendutakoa baino mikrofiltrazio-maila apalagoak", baita ur minerala txorrotakoarekin nahastea ere. Orduan konturatu ziren Sources Alma ez zela joko zikinean zebilen bakarra, ondoan zuela Nestlé multinazional ezaguna ere. Legez kanpoko jokabideak bideratzen aritu dira beraz, kutsatua izanik ere, konfiantza dakarten "natural" ala "mineral" izendapenen pean ura saltzen segitu ahal izateko. Xeheki eta maltzurki antolatutako iruzurra dela ageri da ikerketan: "Kontrolak bideratzen dabilen Eskualdeko Osasun Agentzietako agenteak engainatzeko edo tronpatzeko gailuak erabili ditu enpre-

sak. Zuzenean iturburuko ura eramatea pentsatzen bazuten ere, aitzinetik tratatutako ura zuten hartzen".

Baina eskandalua ez da horretan gelditzen, badirudi estatu-eskandalua ere badela: "Email trukaketa eta ohar andanak erakusten digu Eliseoak [presidentearen egoitza] eta Matignonek [Lehen ministroaren egoitza] lehenetsi izan dituztela Nestlé multinazionalaren interesak, eta hori kontsumitzaileen kalterako".

GUZIA, GOBERNUAREN BABESPEAN

Iazko agorrilean ukan zuten bilera bat multinazionalaren buruen eta Emmanuel Macron presidentearen hurbilekoen artean, tartean zirela Ekonomia ministroa eta Industria ministroa. Debekaturiko filtrazio metodoak erabili izana aitortu zieten, baina gertaera isilean atxikitzea erabaki zuten gobernuko ordezkariak. Gainera, ur mineral naturalei buruzko 2009/54/CE direktibak behartzen ditu estatuak legedi urraketa susmoa izanez gero, jakinean atxikitzea Europako Batzordeko estatu kideak.



IKERKETA JUDIZIALA

Foodwatch elkarteak jarri du salaketa, urte luzeetan egindako "iruzurrak" argitzeko asmoz. Nestlé eta Sources Alma multinazionalen gain, Frantziako Gobernuaren esku-hartzea zein heinetakoa izan den argitzea nahi du elkarteak.

Le Monde eta Radio Franceren ikerketak iazko otsailean buruturiko bilera sekretu baten berri ere dakar, eskandalua are eskandalagarriagoa bihurturik: "Ekintza eta moldaketa plano bat" adosten aritu ziren eskuz esku botere politikoak –governukoak– eta ekonomikoak –kasu honetan, Nestlékoak–, eta hori legedia beren alde aldatzeraino: 0,2 mikrometroko mikrofiltrazioa onartzeko baimena bideratu zien iazko otsailaren 23an prefetei gobernuak.

FILTRAZIO-MAILA ALDATURIK, MULTINAZIONALEN ALDE

Ordura arte 0,8 μm -koa zen filtro-maila, berez hori baino ttipiagoa izateak uraren osaketan eraginen lukeelako. Funtsean, Europako beste herrietan ez da nehon hein hain apaleko filtraziorik

onartzen –apalena Espainiako Estatuan eta Belgikan delarik, 0,45 μm -ko lan-garekin–. Nestlé, bere aldetik, 2010z geroztik zebilen 0,2 μm -ko filtro-maila erabiltzen, kontzientzia osoz legearen gainetik pasata.

Berez, ur mineralaren edo naturalaren izendapena atxikitzeke ez litzateke tratatu behar, prozesuan bere mineral eta oligoelementu guztiak atxikitzeke gisan. Baina errealitatea da, ingurune geroz eta kutsatuak izanik, iturburutik ateratako ur hori ere dugula kontaminaturik. Legediaren aldaketa horrek dakarrena ongi esplikatzen du *Mediapart*-ek *Scandale des eaux en bouteille: le pouvoir politique au service de Nestlé* (Ur botilen eskandalua: botere politikoa Nestléren mesedetara). Gaia hurbiletik segitu duen funtzionario ba-

tek ondokoa aitortu dio kazetariari: "Arau berriak hartzen ari gara Nestlék erabilitako uraren kalitatearen eta purutasunaren gaia saihesturik. Ur jakin batzuk gure osasunerako hobeak direla diogunean, istorio bat kontatzen ari gara: iruzurra legezatu dugu. Baina normala al da talde industrial batek nahi duena egitea Frantziako lurraldean?"

Eskandalua zartzatekoa zela sentiturik, 0,45 μm -ra igoko zuen muga Frantziako Estatuak iazko azaroan. Baina ez du inporta, kazetarien lan sakonari esker atera da argira (estatu-)eskandalua.

Horra beraz: beste behin interes ekonomikoak gailendu zaizkie interes ekologikoei eta osasunari. Eta nolakoa den mundua, kezarazi bai, baina harritu, erdizka harritu gaitu albisteak. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Izaro Bilbao

FRIKITASUNA ALDARRI



BERTSOLARITZAN 'GUAYISMO' PILA BAT DAGO ETA EZ BAKARRIK GOI-MAILAKO BERTSOLARIEN ARTEAN



Pasatzen zait pertsona batzuekin: ia ezagutu gabe zainak ematen dit gauza interesgarriak izanen dituztela esateko. Horietako bat zen Izaro Bilbao. Banekien bertsolaria zela, ilegorria. Bertoaren bueltako sormen talde batean aritzen zela eta Olatz Salvadorren kantu biri jarri dizkiola berriki hitzak. Plazera izan da Bilbao entzun eta etxerako buelta galdera gehiagorekin egitea.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Psikologia ari zara ikasten Donostian. Zergatik?

Oso txikitatik izan nuen argi psikologia ikasi nahi nuela. Sen hori nuela esango nuke, gauza horietan asko sinisten ez dudan arren. Pertsona ulertu nahi nuen mundua ulertzeko edo mundua ulertu pertsona ulertzeko. Artistikoki ere horretara jo dut gero.

Eta Donostia... beste aukera Deustu zen eta pribatua izanik ez nuen han ikasi nahi. Eta, bide batez, Mungiatik ere alde egin nahi nuen, gordinki esanda. Ez dut herriarekiko atxikimendu handirik, ez nau sekula eroso sentiarazi. Herriarekiko izan dudan aingura bakarria bertso-

eskola izan da beti. Donostiara etorri nintzenean nahikotxo aldatu nintzen. Hori nahi eta behar nuen.

Ikasten ari zarenak definitzen zaitu?

Ez nuke esango bereziki. Esango nuke frikikeria bat dela. Gehiago definitzen nau unibertsitatean dudan jardun militanteak edo Donostian daukadan bizitzak.

Eta Mungiara itzultzen zarenean, handik alde egin zuen Izaro zara ala beste bat?

Beste bat. Transgresio bat egon zen hona [Donostiara] etorri nintzenean. Uste dut

herrietan dagoen arrisku bat dela etiketa bat jartzen dizutela sei urte dituztenean eta betiko zarela etiketa hori. Ni beti izan naiz klasean asko inplikutzen zen pertsona, frikia.

Gero Lokatz Loreak-ekin [sormen taldearekin] *Friki Saioak* egin genituen. Beti negatiboki esleitu zitzaidana positibo bilakatu genuenean, aldaketa handia izan zen niretzat. Momentu honetan Mungiarekin beste harreman bat eraiki nezake, orain naizen pertsonatik.

Zein muga topatzen zenuen han?

Ez dakit oso ondo ulertu dudan nik ere inoiz, baina faktore asko dago. Banuen,



Izaro Bilbao Arostegi

MUNGIA, 2004



Basaurin topatu zuen lehenengo *sexilioa* Izaro Bilbaok (Mungia, 2004) eta Donostian gero. Jaioterrian falta zitzaionarekin egin zuen topo bizkaitarrak hiriotan: ero ez zegoela konfirmatuko zion lagun taldea, frikiak eta queerrak gehienak. Bertsotan eta idazten aritzen da, baita Lokatz Loreak sormen taldean ere, diziplinartekotasunetik sortzen. Psikologia ikasketak ari da egiten egun Donostian eta gizarte-psikologiaren alorrean du interes gehien.

adibidez, euskaraz hitz egiteko gogo bat, ez nire familia bereziki euskalduna delako, baizik eta hartu nahi nituen beste bide batzuekin lotzen nuelako: izan literatura, bertso mundua... Eta nire inguruan ez nuen hori topatu.

Horrelako bizpahiru lagun nituen bertso-eskolan eta “ze *guay*” pentsatzen nuen. Bertso udalekuetan izena eman nuen eta hor konturatu nintzen bazegoela nire adineko jende bat nire antza zuena.

“Ez nago ero”, pentsatuko zenuen.

Hori da. Ez nuen ulertzen zergatik ez ninduen ulertzen beste jende batek. Eta segur aski, nik asko handitu dut irudi hori nire buruan eta ez nintzen hain arraroa izango.

Nire kuadrilla Basaurikoa zen eta da, gaur egun haiekin hainbeste kontaktatu ez badut ere. Ez nuen kasualitatez bukatu langile herri batean kuadrilla edukitzen. Frikikeriak tarteko egin nituen lagunak. Gehienak queerrak dira eta esango nuke *sexilio* moduko bat izan zela niretzat Basaurin lagun hauek edukitzea. Nahiz eta batzuk euskaldunak ez izan, jarrera oso desberdina zen. Bertsotan zer egiten nuen jakin nahi zuten eta saioetara etortzen ziren. “Hau nire jendea da”, pentsatu nuen.

Bertso mundua oso mundu konkretua da. Uste duzu horrekiko interesa frikikeriarekin lot daitekeela?

Bai. Izan ere, esango nuke frikiok badugula *guay*-arekiko arbuio moduko bat.

Baina bertso munduan daukadan taldea ere bada mundu horretan ematen den *guayismoa*-ren *hater*-a den jendea. Ni beti izan naiz talde horren partaide edonon. Ikastolan nituen lagun gutxiak ergelak deitzen zituzten eta gerora egin ditudan lagunak ere *ergelak* izan dira. Oso argi dut ez dudala *guay*-a izan nahi.

Zer da *guay* izatea bertso munduan?

Uste dut badagoela diskurtso orokortu bat, horizontaltasunarena, paretik kantatzearena... Denok dakigu diskurtsiboki hori garatzen, oso jende argia dagoelako, baina gero asko da “nik nahi dut izan onena” eta “nahi

ditut lagun gisa onenak direnak” edo “diskurtso interesgarriena dutenak”. Hori lotzen dut *guay* izatearekin. Bertsolaritzan dagoen elefante erraldoi bat da, inork ikusten ez duena. *Guayismo* pila bat dago eta ez bakarrik goi-mailako bertsolarien artean, gure artean ere bai. Ni ere, segur aski, izan naiz noizbait *guay* hori. Nik eta nire lagunak nahiko presente dugun gauza bat da.

Bertso mundua oso diferentea da kanpotik edo barrutik ikusita? Ez ditut imajinatzen azaroan Ilunben aritu ziren finalistak haien artean harreman txarra izaten.

Zerbaitengatik ikusiko duzu horrela, bai. Horizontaltasunaren diskurtsoa baldin badugu, antolatzen badugu Señora Sariketa eta horrelakoak... zerbaitengatik izango da. Kontzientzia behintzat badago. Esango nuke bertsotan dabilen jendearen ehuneko handi bat dela bere herrian *pringatua* izan den jendea eta orain bertsolaria dela. Agian giro euskaldunagoetatik edo kapital kultural jakin batekin datozenetatik ez hainbeste, baina bestela bai.

Bertsolaritza gizartea da, ez da mundu isolatu bat. Noski jende batek zalantzan jartzen dituela gauzak, baina kristoren hierarkia dago, antzerki munduan bezala. Nahiz eta lehiaren kontra egon, desira dezakezu kapital soziala. Denok desiratzen dugu kapital soziala, nik ere bai. Horren kontra egin behar da aktiboki, bestela...

Bertsolaritzaren kolektibotasunak egoa apal dezakeela esaten entzun zaitut elkarrizketaren batean.

Puztu ere egin dezake agian, ezta?

Bai, guztiz. Bertso-eskoletatik gatoz, espazio kolektibo batetik. Horrek zera esan nahi du: “Zu hemen ez bazau, nik ezin dut bertso-eskolarik egin”. Hortik lehiara goaz, eskolar-tekora, adibidez. Eta hor pentsatzen duzu “zurekin entrenatu dut denbora honetan guztian eta zu gabe ezin dut abestu. Behar zaitut, baina zu baino hobeaz izateko”.

Pentsatzen dut zurekin bertso-eskolan aritu direnen puntu ahulak ezagutzen dituzula.



Bai, baina esango nuke existitzen dela konplizitate bat bertso-eskola konpartitu dutenen artean. Bada pixka bat “zu nire taldekoa zara, gu gara *endotaldea* eta *exotaldea* beste horiek dira, beraz, horien kontra joan behar dugu”. Baina egia da badela ere “zu nire laguna zara eta babestuko zaitut, baina hobeto zure gainetik geratzen banaiz”. Besteen kontra goaz esplizituki.

Mungiatik alde egitean molde edo marko bat utzi zenuen han. Zein eraiki zenuen hemen?

Esango nuke azken urtean zalantzan ari naizela jartzen orain arte hemen eraiki dudana markoa. Niretzat gune hori gatazkatsua da oraintxe bertan. Nire zirkuluko jendea asko maite dut momentu honetan, baina oso marko zehatza dut nire ustez. Jendeak irakurtzen nau era jakin batean eta mugatzen nau ezaugarri batzuetara, zeinetara agian nik ez nukeen hain zuzenki atxikia izan nahi.

Noski, marko hori kanpotik eraikia ere bada.

Bai. Egia da momentu batean nik eraiki nuela hau, baina orain saiatzen ari naiz nire buruari permititzen beste ideia eta jende batzuekin ere ibiltzea. Adibidez, *bollera* gisa identifikatu naiz unibertsitatera etorri naizenetik. Askapena izan da, nire arazoa kolektibizatzeke oso era indartsua. Hala ere, gaur egun Euskal Herrian bollerismoa planteatzen den erak zalantzak sortzen dizkit eta orain hasi naiz nire buruari baimena ematen esateko “ez duzu denarekin ados egon beharrik”.

Normalizatu eta onartu beharko litzateke askoz ere gehiago zalantza. Nik etsaitasun jarrera horrengatik gauzak zalantzan jartzeko zailtasunak izan ditut eta ez nuke hori nahi, uste dut ez dela osasuntsua.

Noski, edozein mugimendu edo kolektibo sortzeko dena beti zalantzan ez jartzea izango da puntu gakoetako bat, bestela ez litzatekeelako taldea sortuko eta hori delako norbanakotik taldera salto egitearen gauzetako bat, ez izatea hain inportantea zure iritzia, hori beti etorriko da bat indibidualtasunari uko

egitearekin. Baina zein puntutaraino? Dotrina arriskutsua da.

Gogoan dut duela hiruzpalau urte Saioa Alkaizak Nafarroako Bertsolari Txapelketan bota zuela ezin zuela *guay-a* izan zentzu guztietan.

Iruditzen zait oso fenomeno arriskutsua gertatzen dela Euskal Herrian eta, hortaz, bertsolaritzan: hierarkia berriak sortzearena. Oso indibidualak diren borroak sortzearena. Nik, adibidez, polimaitasuna aldarrikatzen dut eta praktikatzen dut, baina ez dut uste horregatik hobe edo apurtzaileagoa naizenik. Hori da azken aldian sortu zaidan zalantzarik handiena.

Uste dut oso normalizatuta dauzkagula “borroka” deitzen ditugun oso gauza indibidualistak. *Check list* batzuk izango bagenitu bezala da, “mundua konponzeko zer egin behar den” biltzen duten zerrendak. Baina inork ezin du *check list* batekin mundua konpondu. Inork ezin du gizonekin ez oheratzearen mundua konpondu, nahiz eta ulertzen den hori badela zerbait arrakalatzeko era bat.

Noiz eta zergatik sortu zenuten Lokatz Loreak?

2022ko udan. Bizkaiko eskolartekoa irabazi nuen nik urte hartan eta presioa eta lehia nola bizi izan genituen ikusi ondotik, erabaki genuen beste zerbait egitea, bertsoa desberdin bizitzeko asmoz. Araitz Katarainek, Janire Arrizabalagak eta hirurok jarri genuen marxan proiektua, baina aurretik ez genuen gehiegi ezagutzen elkar.

Gogoratzen dut, eta hau gustatzen zait, ez genuela sentitzen proiektua “gure” ideia zenik, “guk” egin behar genuenik... eta esango nuke hori arte munduan sarri gertatzen dela, ezta? “Guk eduki dugu ideia hau, guk egin nahi dugu eta gurea da. Kolektiboa da, baina nire kolektiboarena”. Kolektiboa izatea ez da talde izatea bere horretan, kolektiboak prest egon behar du handitzeko. Bestela beti goaz taldeka. Heterosexualitatea ere talde bat da, kolektibo bat, beraz, kolektiboa ez da beti onaren sinonimo.

Zein da zuen ekarpena?

Bueno, nik nire izenean hitz egin dezaket bakarrik, baina esango nuke interesa dugula motibatzen gaituzten gauzak egiteko. Ez dugu egiten arrakasta lortzeko eta badakigu ez garela onenak, baina ez dugu izan nahi ere.

Nik asko apreziatzen dut eta uste dut oso ekintza antikapitalista dela nire lagunekin sortzea nire lagunekin ondo pasatzeko. Askotan, esaten dugunean “gauza politikoak egingo ditugu” horren atzean arrakastaren bilaketa dago. Elkarri beti esan diogu oso argi momenturen batean ikusten badugu proiektuak ez digula ekarpenik egiten, hor bukatuko dela.

Nahiz eta zuen helburua hori ez izan, uste duzu erreferente zaretela edo izan zaitezketela beste gazte batzuek?

Polita izango litzateke. *Friki Saiok* egin genituenean, asko hunkitu gintuen gauza bat izan zen Bizkaiko bertso barne-tegitik deitu gintuztela han abesteko, gazteek ikus zezaten beste gazte batzuk ari zirela gauza desberdinak egiten.

Zuendako Lokatz Loreak sortzeko erreferente edo motibazio iturri izan dira Señora Sariketa, Ahalduntze bertso-eskola edo bestelako saio alternatiboak?

Bai eta badira oraindik. Behe Banda ere izan daiteke. Esango nuke guk asko



miresten dugula sortzeko era kolektiboa. Mejillón Tigreren oso fan ere bagara, adibidez. Saiatzen gara hori bilatzen gure inguruan, noski.

2017an Maialen Lujanbiok pertsona trans baten ahotik kantatzean publikoaren partetik entzun zen txalo zaparrada hori benetakoa da? Edo zuzentasun politikoaren izenean txalotu zen?

Hori lotuta dago gizartearen feminismoak hartu duen bilakaerarekin eta arduratzen nauena da betiko zalantza: feminismo burges eta zuzena. Hori da “ondo sartzen zaigun” feminismoa. Bueno, niri ez, baina ondo sartzen zaiona jendeari, erraza dena txalotzeko.

Ez nuke politikoki zuzena den horretan erori nahi. Ez nuke nahi Señora Sariketara joatea fondoan horrekin ados ez dagoen jendea. Nahi dut hurbilduko den jendea izatea benetan ulertzen duena zer nolako afera den lehia bertsoan eta ulertzen duena beste espazio batzuk behar ditugula. Elon Muskek agur nazia egitea hain larria ez dela dioen jendeak transexualitateari buruz kantuan gaudenean txalotzen bagaitu, igual zerbait txarto egiten gabilta.

Zein leku du 2025eko bertso munduan neska gazte batek?

“
Uste dut
oso ekintza
antikapitalista dela
nire lagunekin sortzea
nire lagunekin ondo
pasatzeko”

Guk eduki dugu jende asko bidea asko erraztu diguna eta hori aintzat hartu behar dugu, nik oso presente dut. Lehen zen “behar dugu lekua” eta gaur egun gehiago da “zer egin behar dugu leku honekin?” edo “zer nahi dugu esan leku honetan?”. Sentitzen dut asko erraztu digutela bidea, baina askoz ere hobeto jakingo nukeela norantz joan bidea itxia balego, irekitzea litzatekeelako.

Asko pentsatzen dut ere “lekua eman didatenekin ados egon behar dut lekua eman didatelako?”. Zor historiko hori bai sentitzen dudala pixka bat. Nik nahi nuke Ahalduntze bertso-eskolak gero eta jende gehiago barne biltzea eta espazio hori egungo gatazka eta beharrei egokitzea. Zaila da, baina hala behar du.

Uste duzu jendeak egozten dizkizula diskurtsiboki ardura batzuk mutil bati egozten ez dizkionak?

Uste dut jendeak uste duela badakiela zer esan behar duan, eta ez dakite. Edo sentsazio hori daukat. Gizonak ez diren nire belaunaldikoei buruz hori pentsatzen dutela uste dut, uste dutela badaikitela zer dugun esateko. Arin esleitzen dira ezaugarri batzuk.

Eta nor da jende hori?

Denok. Ni ere bai. Ez dut uste inork nire profila ikusita beste zerbait pentsatuko duenik, ezta nik kanpotik ikusiko banu ere. ●



DeepSeeken astindua

Silicon Valley-ko oligarkia AEBetako gobernura iritsi berritan lehertu da adimen artifizialaren (AA) burbuila. Txip aurreratuen erraldoia den Nvidia-k urtarriaren amaieran izandako %16,8ko balio galera, egun bakar batean inoiz izan den burtsa balio galerarik handiena da. Segidan erori ziren erraldoi teknologikoen balio gehienak ere. Bere onera etorri den arren kapitalizazio galeraren erantzulea DeepSeek da, adimen artifizialeko txatbot berri bat.

Burtsa izuaren arrazoi nagusia ez da soilik bilatzailearen jatorri txinatarra, baizik eta adimen artifizialaren egundainoko garapen eredia hankaz gora ipintzen duela. Izan ere, bilatzaile berriak eraginkortasun handiagoa du, energi kontsumo nabarmen murriztagoa, eta produkzio kostuak ere asko jaisten ditu. Horrek guztiak salmenta prezioen jaitziera indartsua ekarri du. Bestalde, kode irekian lan egiten du; edonork ikus ditzake zeintzuk diren iturriak eta algoritmoaren eraikuntzarako bidea (ikus Urko Apaolazaren erreportajea, ARGIA-ko 2905 zenbakian).

DeepSeek bilatzailearen sorrera arlo teknologikoan, batik bat adimen artifizialaren esparruan, dagoen lehia geoekonomiko eta politikoaren beste kapitulu bat baino ez da. Eta argi geratu da, Musk erosteko prest dagoen Open Alren ChatGPT edo Metaren Llama baino nabarmen merkeago dela DeepSeeken aukera; *low-cost* adimen artifizialari atek zabaldu dizkio.

Ez da kasualitatea Trump eta Musk bikoteak esan izana Txinarekin akordioa bilatzearen alde egingo dutela. Bi ekonomia erraldioen arteko interdependentzia gero eta handiagoa da

Txina bezalako herrialde autoritario bateko enpresa apal batek merkatuaren bidez Silicon Valleyk AAn zuen monopolioa lehertu izana paradoxikoa da. Eta are harrigarriagoa egiten da, trumpismoa, plataforma teknologikoak eta AA gorpuzten ari diren unibertso militar-industrial-digital berriaren oligopolioaren aurkakoa delako. Gogoan izan behar dugu Bidenek jada Txinara txipak bideratzea debekatu zuela AA garatu ez zezan. Hain zuzen, oztopo hori gainditzeko bide propioa jorratu izanak ekarri du DeepSeeken arrakasta. Urrunago joan nahian, Trumpek lau urtetan AArako azpiegiturretan bostehun mila dolarreko inbertsioa ekarriko duen Open AI, Oracle eta SoftBanken arteko Startgate aliantza bultzatu du.

Galdera irekia da nolako erantzuna etorriko den AEBetatik, Trump horren




MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

oldarkor dagoen garaian. Agertoki bat izan liteke Washingtonen disuasioa eta indarra erabiltzea munduak teknologia txinatarra oztopatzeko. Nola edo hala DeepSeekek Huawei-k 5Grekin izandako trabazko bidea errepikatuko litzateke horrela jokatzuz gero. Gogoan izan, Huawei 5G teknologia garatzen lehena izan zen, baina Washingtonek Mendebaldeko bere negozioak blokeatu zituen banan-banan eta horrela bere lehiakideek 5G teknologia imitatzeke denbora izan zuten, telefonía txinatar erraldoiaren merkatu hazkundea mugatuta.

Nolanahi ere, bistakoa da Txinak AEBekiko duen teknologi arrakala murrizteko ahaleginean aurrera egin duela. Ez da kasualitatea Trump eta Musk bikoteak esan izana Txinarekin akordioa bilatzearen alde egingo dutela. Bi ekonomia erraldioen arteko interdependentzia gero eta handiagoa da eta teknologia berriek zeresan handia dute integrazio gatazkatsu horretan. Kolaborazio lehiakorren garaia ireki daiteke agertoki alternatibo gisa.

Bi potentzia handien arteko liskarraz harago, DeepSeeken sorrerak aukera zabaltzen du dauden kontrol eta kontzentrazio eredu nagusiekin bat ez datoren munduko enparauan AA publikoa eta irekia garatzeko. AArako teknologiek duten gizarte eta ekonomi zentralitatea kontuan hartuta, gizarte beharretara eta planetaren mugekin lerratuko den aukera irekia eta publikoa indartzea aldarrikapen atzerazina da. ●

Bretoiera



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

MAIDER LETURIAGA

Iragan urtarilaren hondarrean, Britainiako lurraldeko bi hizkuntza gutxituei buruzko azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak publiko egin zituzten bertako arduradunek. Haiek berek aitortu zuten harriturik gertatu zirela emaitzak ikustean. Hain zuzen ere, egoerak eta bilakaerak hotzikarak eragiten ditu.

Laburbilduz, hona hemen Britainia eskualdeko arduradunek plazaratu dituzten datu nagusien aipamen bat. Ondorio nagusia da bretoierak, sei urte barne, hiztunen erdia galdu duela. 1950eko hamarkadan, milioi bat hiztun baino gehiago zituen bretoierak; 2018an 207.000 ziren; eta gaur 104.000 lirateke. Sei urtez %50eko jaustea; bost hamarkadaz, %90ekoa. Gaurko egunean, bretoiera dakite bertakoan %2,7k (%5ek mendebaldeko partean). Erabileraren aldetik, hiztunek diote gehiago erabiltzen dutela. Transmisioa nagusiki eskola elebidunen bidez gertatzen da. Inkesta beraren arabera, Britainiako jendearen atxikimendua hizkuntzarekiko (%60) handia da, baina iraupen esperantza ahula da (%25). Galo hizkuntzaren bilakaera antzekoa da, nahiz eta horren jaustea ez bretoierarena bezain lasterra agertu. Hala ere, zenbakiak salatzen dute galoa ere behera doala.

Britainian ere bi ikuspegik talka egiten dute zenbakiak aztertzeko orduan, erakundeenak eta militanteenak, eta kontua ez da gaurkoa.

Hizkuntza politikaren arduradunak eta politikariak diskurtso baikorra zabalitzen ahalegindu ziren. Britainian, bertako hizkuntzen aldeko atxikimendua azkarra zela –eta dela– erran izan da eta han hizkuntzaren alde hartu neurriak, frantses estatuko beste eskualde zenbaitu konparatuz, gehiago eta engaiatuago kontsideratu izan dira: hautetsiek herri, departamendu nahiz eskualde mailan bretoieraren bermatzea eta sustatzea, hainbat egitura administratiboren diru bideratzea hizkuntzaren transmisio eta erabilerari begira, 2004az geroztik erakundeek bretoiera eta galo hizkuntza eskualdeko hizkuntza ofizialtzat kontsideratzea... Hizkuntzaren egoeraren hobetzeko bideak jarri dituztela diote eta ondorioak ere nabarmentzen. Datuak aurkeztean, gorago aipatu datu horiez gain, ondorioztatu zuten hiztun gazteen kopuruak gora egiten duela, azpimarratu zuten familia transmisioa erabat eten baldin bada ere, eskolen bidezko irakaskuntza garatuz doala, eta sail elebidunaren apustua egin zu-

ten ondoko urteei begira, hizkuntza politikaren aurrekontua berrikusiko zutela hitzeman ondoan.

Bizkitartean, bertako hizkuntzaren militanteek beste ikuspegi bat eta beste interpretazio zenbait plazaratu izan dute urteetan zehar, kezkatuak hiztunen adinaren batezbestekoarekin, hiztunen hizkuntz gaitasun ez hain garatuarekin (hiztun pasiboak, komunikazio gaitasun desorekatu eta partziala, ekoizpen soziokultural murriztegia...), hizkuntzaren aldeko baliabide eskasa salatuz. Bretoiei beren izpiritu militanteak, biziraupen senak, zulo beltzaren beldurrak erranaraziko die deus ez dela galdua, segur aski, baina errealitatea gordina zaie.

Bi ikuspegi, bi irakurketa, zenbaki beren haritik. Bi bizipen eta bi helburu, dudarik gabe.

Nolanahi ere, hango egoerak gogoe-tak eragiten ditu: behin horretaraino heldurik, zer gehiago egin eta nola? Non da hozka, noiztik goiti da kontsideratzen hizkuntza bere hondarrera heldua dela? Eta hala bada, nork du hori adierazi behar, zeini doakio horren berri ematea? Zein hiztun prest da entzuteko bere hizkuntzaren etorkizuna *konfidentziala* bihurtu dela? ●



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Hatza ezpainetan

Bi neska komisarian, urduri, hiru urtetik gora luzatu den jazarpen egoera salatzen. Izendatzen. Tipo berbera agertzen zaielako nonahi. Presentzia arraro berbera neskek parte hartzen duten ekitaldi kulturaletako atarietan, bietako baten amaren etxepean, bestea korrika egitera joan ohi den itsasargiaren inguruan. Parean ertzain bat –gizonezkoa– ordenagailuko pantailari beha, neskek diotena transkribatzen, leku eta data guztiak zerrendatzen, indiferentzia aurpegiz.

(Hiru urteren ostean, jakinarazpen bat etxeko atean).

Bi neska Bilboko Buenos Aires kaleko seigarrenean. Eraikin handi marroixka bat, espazio ezin arrotzagoa. Ate zenbakituak, togak eta karpetak. Ezezagun zaizkien kodeak –ezin jakin non itxaron behar den, non eseri–. Duela hiru urte salatu zuten tipoa ere zain dago, haiengandik metro gutxira. Ingurura begiratuta, pertsona arrazializatuz beteta dena. Gaztelaniazko mundu bat da, zeina “ni itzultzailea naiz” esanez hurbildu zaien emakumeak arraildu berri duen tarte labur batez.

Handik astebetetera, eraikin horretan bertan izango da Mario López Lointek Gernikako entrenatzaile ohiaren kontrako epaiketa. “Harreman platonikoa”. Abusu jarraituak hiru urtez. Gizonak ho-

geita hamaika; neskak hamahiru. Kanpoan pankarta bat. Eskerrak. Gernikako Sare Feminista: “Epaia dioena dioela, zurekin gaudel!”.

Eta handik gutxira, Carretero epailea Mouliáá galdekatzen. Publikoki umiliatzen. Eta handik gutxira, Hermoso Rubialesek musu bere baimenik gabe eman ziola defendatzen, enegarrenez. Guztiok geure begiz ikusi ahal izan genuena ere zalantzan jar daitekeelako, nonbait.

Samara Veltek *Berria FM* podcastean dioenez, eraso matxista bat salatzen deanean beti sortzen dira bi erreakzio edo bi narratiba kontrajarri: patriarkala eta feminista. Izan ere, eraso baten berri izan orduko hasi ohi dira hirugarrenak xehe-tasun eske. Xehetasun horien arabera erabakitzeke ea benetan eraso izan ote den ala ez. Beti, beti, beti jartzen da sinesgarritasuna auzitan. Bai kalean, bai ertzain-etxean, baita epaitegietan ere.

Horrexegatik garatu dugu mesfidantza kronikoa sistema judizialarekiko. Horrexegatik garamatza isiltasunera andere bendadunak. Horrexegatik sentitzen gara otsoaren ahoan, babesgabe. Horrexegatik egin du gainez Instagrameko *Denuncias_euskalherria* kontuak. Horrexegatik jarri behar zaio hatza ezpainetan “baina zergatik ez zuen salatu?” galdetzen duen orori. “Zergatik modu anonimoan?”. “Zergatik hain berandu?”. ●

Musker eta Tranpa



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Batzenak, dirutza izatea ez da nahikoa, eta euren ego hauskorrek diruaren txintxina ez ezik, protagonismoa ere eskatzen dute. Aberats okituak izatea nahikoa izango ez balitz bezala. Beti gehiago behar dute, ambizioa deritzote antsia horri, baina botere gosea eta nabarmendu beharra direla ere begitantzen zait.

Halako bi dabilta portada eta albiste guztiak betetzen. Bikote komikoen antzera, elkarrekin espektakulua ematen, baina barreak baino gehiago kezka eta beldurra dabilta zabaltzen. Musker eta Tranpa, Tranpa eta Musker. Biek bietara.

Demokraziaren izenean bozkak jaso dituzte. Tranpa jarrita, oso ondo maskaratu dute hainbat kontu. Gure ustez, tronpatu egin dira hautesleak, okertu, eta gu muskertuta sentitzen gara, erresuminduta.

Maskarada ederra montatu du biko dinamikoak, Tronpak eta Muskerrek. Dantza eta kantu gutxi, eta eszenifikazio larregi. Espektakulua, baina oraingoan buhame, txorrotzak, kauterak eta khestuak ez dira partaide, biktima baidiz. Maskarada beltzekoak jopuntua dira orain. Kabana eta Pitxu sasia dabilta.

Musker eta Tranpa, maskaratutako tranpatiak mundua aztoratzen. ●

Trumpen ispilua



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Trumpen itzulera pizgarri izan da sendotuz doan eskuin muturreko erreakzionarioen mugimenduarentzat. Izan ere, historikoki, faxismoaren gorakada krisi ekonomikoekin lotuta egon da, baita sistemaren zilegitasun politiko eta ideologikoaren krisiarekin ere. Gaur egun, geldialdi ekonomikoak eta prekarizazio orokorrak etorkizunarekiko konfiantza ahuldu dute eta errudunak bilatzeko joera indartu. Testuinguru honetan, eskuin muturra frustrazio hori kanalizatzen ari da, gutxiengoak eta talde ahulak jopuntuan jarrita.

Euren burua antisistematzat aurkezten duten arren, mugimendu horiek elite ekonomikoaren interesak defendatzen dituzte, eta diskurtso populistarekin kamuflatzen dute. Barne aniztasuna izan arren, eskuin muturreko alderdi guztiek oinarritzko elementu komun batzuk partekatzen dituzte: enpresa pribatuaren defentsa, fortuna handientzat zerga murrizketa, lanaren desarautzea eta testuinguruaren arabera protekzionismoa edo neoliberalismoa sustatzea. Gainera, gastu publikoa murriztea eta babes sozialerako egiturak deuseztatzea bultzatzen dituzte.

Trumpen itzulerak ispilu baten aurrean jarri beharko gintuzke, krisi klimatikoak eta krisi sozialak are gehiago handituko duten desberdintasunaren aurrean

Hala ere, gehiengo elektoralak lortzeko, eskuin muturrak gerra kulturalaren estrategia erabiltzen du, gai ekonomikoetatik arreta desbideratzeko eta desadostasuna etsai faltsuengana kanalizatzeko, hala nola immigrazioa edo "genero ideologia". Diskurtso horrek, batez ere, langile klaseko gizon zuriak ditu helburu. Hain zuen, kapitalismoak bizi-maila eta itxaropenak murriztu dizkienak. Prekarizazio horren aurrean, eskuin muturrak pribilegioak eskaintzen dizkie, beste kolektibo batzuk lan-

merkatu eta baliabide sozialetatik baztertuta, eta erresuminean oinarritutako klase arteko aliantza sortuta.

Bestalde, neoliberalismo progresistak aukera-berdintasunaz hitz egiten digu, eta gaitz txikiagoaren izenean, meritokrazia eta giza kapitalaren irizpideak oinarri, baliabideak justuki banatuko dituen *statu quo* baten defentsa proposatzen du. Horrela, langile klasea bi aukeren artean harrapatuta dago: batzuek gutxi batzuen pribilegioa defendatzen dute besteen bazterketaren kontura, eta besteek, berriz, desberdintasuna legitimatzen dute igogailu sozialean oinarrituta.

Zentzu ona asaldatzen zaigu norbait jatorriagatik edo sexuagatik baztertuta izan daitekeela pentsatzean. Zergatik iruditzen zaigu bidezkoa beste arrazoi batzuegatik jendea atzean uztea? Trumpen itzulerak ispilu baten aurrean jarri beharko gintuzke, krisi klimatikoak eta krisi sozialak are gehiago handituko duten desberdintasunaren aurrean: eskuin muturrak bezala bazterketarekin erantzun dezakegu, edo aberastasunaren banaketan oinarritutako proiektu baten aldeko apustua egin. ●

M8

Emakumeen
Nazioarteko Eguna

#Ni
Feminista
Naiz

Feminismoa zurekin bat



Martxoak 8

Faxismoa borrokatzeko feminismitik indarrak batzeko deia

Martxoak 8a heltzear da beste urtebetez, eta nahiz eta zenbaitek erabiltzen duten urtean behin beren irudia morez margotzeko soilik, feministek kaleak aldarriz betetzeko baliatzen dute egun seinالاتu hau. 2020an, duela bost urte, milaka emakumek elkarrekin oihukatu zuten euren eskubideen alde; egun gutxiren buruan, COVID-19aren pandemia hedatzea leporatu zieten jada su-txikian bero-bero zeuden diskurtso misogino eta erreakzionarioek. Feministak, gaitz guztien errudun.

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Paradoxikoki, pandemiak begi bistan utzi zuen feministen eskakizunetako baten urgentzia: zaintza sistema iraultzearena. Hortik abiatuta, 2023ko greba feminista orokorrak balio izan zuten, besteak beste, mahai gainean jartzeko zaintza publiko eta komunitarioranzko bidea egin beharra: “Bizitza duinen aldeko borroka da hau, bizitza osoan zehar zainduak izateko eta konpromiso berdinez zaintzeko eskubidea lortzeko”, ohartarazi zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Interpelazio zuzenak egin zizkien bai instituzioei bai gizonei, eta gogorarazi zuen zaintzaren pisu handiena emakume arrazializatuen eta migratuen bizkar gainean uzten dela.

Feministen urteetako interpelazioek, lorpenez gain, erreakzioak eragin dituzte. Azken bost urte hauetan pande-

mia bezala barreiatu dira feministen aurkako irain eta eraso matxistak, eta faxismoaren ke usaina nabaritzetik garrak gertutik sentitzera pasatu gara. Mugimendu feminista suebaki izateko prest dago, “proposamen integrala” eskainita. Elene Lopetegi Bilgune Feministako eta Donostiako Asanblada Feministako kideak ohartarazi digunez, faxismoak eragin ditu indarkeria matxistaren gorakada eta normalizazioa: “Gizon askok pribilegioak kolokan ikusi dituztenean, jarrera erreakzionarioa egon da”. Gazteen artean feminismoaren aurkako jarrera areagotzeak ere kezka piztu du, eta Lopetegiren esanetan arrazoi bat izan daiteke nesken ahalduz: “Marra gorriak markatua go dauzkate, eta beraz, mutilen azkarrago ikusten dute pribilegioak galtzen ari direla; lehen agian ez zen horrela.

Izan liteke horregatik datorrela mutilen erreakzio handiagoa”.

Indarkeria matxista presente dago forma askotan, eta emakumeak hiltzen jarraitzen du: 2025ak dituen bi hilabete eskas hauetan bi gizon atxilotu dituzte Euskal Herrian, haien amak hil dituztelakoan, 84 urteko emakume bat Bilbon eta Mirentxu Arregi Irunen. 2003an erregistratzen hasi zirenetik, gutxienez 127 emakume eta hamabi haur hil dituzte Euskal Herrian, indarkeria matxistari lotuta.

M8ak balio du hori aldatzeko? “Egia da azken urteetan martxoaren 8ak badiela arriskua feminismoaren izenean aldarri oso orokorretan geratzekoa, eta batzuetan zenbat eta zabalagoa izan mobilizazioa, erradikaltasun edo politizazio maila diluitu daiteke. Baina, aldi berean, lortu dugu jende pila bat



**Biolentzia
sexistari
Stop!**
HAURRALDE
FUNDAZIOA

**Nire Gorputza,
Nire
Eskubidea!**
Haumalde Fundazioa

mugitzea; indarguneak eta arriskuak ditu M8ak”, aitortu digu Lopetegik. Mundu mailako faxismoaren gorakadaren testuinguru honetan, ordea, aurtengo mezua argi dute: “Berresten dugu mugimendu feministaren eta feminismoaren beharra horri guztiari aurre egiteko sektore desberdinetatik”. Leloa ere zentzu horretan hautatu du Mugimendu Feministak: *Faxismoaren kontra ausardia eta aliantza feministak*.

Bilgune Feministaren irakurketak ere bat egin du ideia horrekin, eta Lopetegi Bilguneko kideak azaldu digunez, *Heldulekuak argi, Euskal Herria feminista* leloaren bidez azpimarratuko dute desiratzen duten “herri independente eta feminista” eraikitzeke heldulekuak direla feminismoak, baita desberdinkeriak eta indarkeria matxista baztertzeko tresna ere. “Ez soilik teorikoki, baizik eta militantzian eta gure artean ditugun harreman, sare eta aliantzetan ere, horiek ere badirelako gure helduleku aurrera egiteko”.

FAXISMOAREN ESPRESIO GUZTIEN KONTRA

Faxismoa “zentzu zabalean” ulertu behar dela gogorarazi digu Lopetegik, forma asko hartzen dituelako, batzuk argiak, Vox bezalako alderdien diskurtsoa, adibidez, eta besteak oharkabeagoak, jarrerara arrazistak, kasu. Hain zuzen, M8a prestatzeko asanbladetan eztabaidatu dute faxismo hitzaren esanahiaren inguruan, historikoki iruditegi zehatz bati lotu izan zaiolako: “Agian kosta egiten da belaunaldi jakin bateko jendeari azaltzea faxismoa badela diskurtso arrazista eta transfoboak zabaltzea ere; ulerkera desberdinak izan ditugu. Baina uste dut oro har ulertu dela marko zabal hori jartzea”. Ez hori bakarrik, markoaren barruan kokatu dute barne begirada ere bai, autokritikarena. “Mugimendu feministan zein ezkerreko mugimenduan ere, normalizatzen ari dira jarrera eta diskurtso batzuk arrazistak direnak, eta ez genituzkeenak onartu behar. Faxismoarena ez da soilik kanpoan gertatzen den gauza bat”.

“Bilgunetik askotan esaten dugu abiapuntu ona dela zapaldu bezain zapaltzaille garelako onartzea”. Lopetegik oroitarazi du Euskal Herriko Mugimendu Feminista “oraindik zuria” dela, baina ikuspegi interseksionalean sakontzen jarraitzen duela; izan ere, jakina da subjektu eta gorputz konkretu batzuk faxisten erasoaren jopuntuan daudela, eta mugimendu



Elene Lopetegi Bilgune Feministako eta Donostiako Asanblada Feministako kidea.

“Inportantea da feminismo ezberdinen artean aliantzak egitea, aldarri komunak bilatzea eta elkarrekin irakurketa bateratua adostea”

Elene Lopetegi

feministak ere kolektibo horien guztien eskubideak defendatzeko borrokan jarraitzen du. “Ari gara lantzen emakume migratu eta arrazializatuek mugimendu feministan duten tokia, eta aliantzak sendotzen”. Halaber, azken urteetan ari dira hausnartzen feminismoen subjektuaren ganean: “Kolektibo transmaribibolloko kideok ere bagara mugimendu transfeministaren parte, eta hor baditugu subjektuarekiko gatazka historikoak; gaur

egun TERFen gaia hor dago...”. Borroka interseksionala izango da M8koa ere, eta kontuan izango dute “gorputz eta subjektibitate asko” direla eta guztien artean artikulatu behar direla.

NOLA EGIN AURRE ERASOEI?

Lopetegik dio autodefentsa feministaren bidea segitzen dutela. “Indarkeria matxistaren baitan salatzen ditugun eraso guztiei aurre egiten ari gara, izan eraso transfoboak, lesbofoboak, eta abar”. Eraso faxistei bere horretan ez dira ari aurre egiten, “beste marko batzuetatik” egiten delako, koordinadora antifaxistetatik, esaterako. Eragile horiekin batera faxismoari aurre egitean sinesten dute mugimendu feministatik, eta Lopetegik Donostiako kasua azpimarratu du. “Kaleko Afari Solidarioen aurkako erasoei marko zabalago batzuetatik erantzun zaie, eta mugimendu feminista barruan egon da”. Horregatik, Lopetegiren esanetan, erronka da eraso faxista horiei erantzuna emateko sortzen diren espazioak feministak izatea: “Orain arte es-



pazio antifaxistak ez dira izan feministak berez, eta ez dira kontuan hartu beste eraso batzuk". Berrito ere faxismoaren terminologiaren ulerkeran jarri du fokua: "Arriskua dago dena eraso faxista gisa hartzeko, kontuan izan gabe eraso batzuek jomugan dituztela subjektibitate jakin batzuk. Batzuentzat oso eroso izan daiteke esatea denak direla eraso faxistak; baina zuk ere egiten dituzu erasoak". Erantzun feminista eta antifaxista ondo integratzearen alde egin du, eta horretarako aliantzak jostera dei egin dute.

M8ko leloarekin hori adierazi nahi izan dute: "Azpimarratu nahi dugu ze inportantea den feminismo ezberdinen artean aliantzak egitea, eta mugimendu feminista osatzen dugun talde eragile eta norbanako ezberdinen artean aliantzak egitea". Martxoak 8a bezalako egun puntualetan "aldarri komunak bilatzea eta elkarrekin irakurketa bateratua adostea" ezinbestekotzat jo du, ez soilik mugimendu feminista barruan, bestelako eragileekin ere.

Aliantza horiek egiteko Martxoak 8a eta Azaroak 25a bezalako egunak aproposak direla dio Lopetegik. Asanblada irekien bidez antolatzen dira egun horiek, herriz herri: "Beti da zaila. Halako egunek jartzen gaituzte gure burua berrikusten, zeren beti da hausnartzeko gaia asanbladetan zeintzuk gauden eta zeintzuk ez. Gure biltzeko moduak aldatu, eragile ezberdinei atek jotzeko momentuak bilatu... mugimendu feminista bera ere berrikusteko aukera ematen du M8ak". Aitortu du beti ez dela erraza aliantzak egitea, baina berrikusi behar dela norberak zein ardura duen aliantzak egiterako orduan. Lopetegik jakinarazi duenez,



adibidez, Donostiako asanbladan ardura hori hartu eta etxeko langileekin ekimen bat prestatzen ari dira M8rako. "Etxeko langile batzuk gerturatu dira asanbladetara, eta ez da beti hala izaten, zaila dutelako ordutegiengatik, lan baldintzengatik eta mugimenduaren nolakotasunagatik". Aliantza hori "zaintzen" saiatzen ari direla dio, eta orain arte parte hartu ez duten talde edo norbanakoek M8tik harago iraunkorki jarrai dezaten moduak bilatu nahi dituzte.

Zaintza eskubidea, sindikatuen aldarri

Martxoaren 6an 11:00etan Bilbon eta Iruñean mobilizazioak egingo dituzte sindikatuek, patronalak eta Eusko Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernuarekin batera. LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta Hiru sindikatuek egin dute deialdia, zaintzari lotutako hiru eskaera nagusirekin: baldintzak duindu, negozioa amaitu eta sistema publiko-komunitarioa garatu. Maddi Isasi LABeko ordezkariak zehaztu digunez, A30eko greba feminista orokorraren ostean instersindikalak erabaki du -mugimendu feministak parte hartzen du- berrito ere zaintzaren gaia kalera eramatea, "Denon bizitzak erdigunera" dinamikaren baitan. Bi arrazoi nagusi izan dituzte: "Batetik, berretsi nahi dugu zaintza eskubide kolektiboaren aldeko borrokan ekarpen sindikala egiten jarraitu behar dugula eta gaia lehentasunetara ekartzeko konpromisoa dugula. Bestetik, beharra ikusten dugu gaia agendan mantentzeko, eta M8aren testuinguruan mobilizazio indarra aktibatu nahi genuen", argitu du Isasik.

Greba ostean sindikatuek jarraitu dute lanean herri akordioan adostutako puntu nagusiak negoziatio kolektiboetan txertatzeko, Isasik baieztatu digunez: "Sindikatu bakoitza bere eremuan eta norbere gaitasunarekin ari da lanean, enpresaz enpresa aldarrikapen horiek sartzeko saiatzen. Baina esango nuke nahiko jarrera itxia topatu dugula patronalaren eta instituzioen partetik oro har". Ziurtatu du toki batzuetan lortu dutela aldarrikapen batzuk sartzeko, baina zenbaitetan patronalak euren eskaerak gutxietsi egin dituela salatu du. Aldarri horiek patronalek onartzeko, lehenik langileen artean ere pedagogia egin behar dela gogorazi du, eta bide horretatik antolatu dituzte M6ko mobilizazioak.

M8TIK HARAGOKO ALIANTZAK

Martxoak 8ko aldarririk egun bakarrean ikusarazten dira, baina mugimendu feminista jakitun da egun horrek balio duela herrietako jendea aktibatze eta borroka feministara gero eta jende gehiago erakartzeko. Horren erakusle da herrietan egiten dituzten egitarau opa-roak, tokian tokiko problematikari erantzuten dietenak, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren aterki orokorretik xehetasunak jorratuta.

Baionako Sutan kolektibo transfeministak ezaugarri horiek biltzen ditu: aktibazioa eta aliantzen indarra. Hainbat talde feministak osatu dute kolektiboa berriki, baita taldean militatzen ez duten baina M8 eta A25 egunen antolaketan lagundu nahi duten norbanakoek ere. “Bilkurak joan arau, gero eta jende gehiago hurbildu da”, ziurtatu digu Aña Iriart Sutaneko kideak. Azken urteetan aldarri feministek kaleak gero eta indar handiagoa dutela dio Iriartek, eta baieztatua du beren kabuz jarduten zuten taldeak Sutan kolektiboan batzeko lagundu duela indar hori handitzen. “Elkarlan gehiago ditugu. Eta oharzten gara manifa egunetan ere gero eta jende gehiago hurbiltzen dela. Duela bizpahiru urte zinez ez zen jende ainitz, eta orain gero eta gehiago gara”. Azken urteetako bultzada aprobetxatuta, M8 ostean Ipar Euskal Herriko beste eragile feministekin ere aliantzak egiten jarraitzeko asmoa agertu du Baionako Sutan kolektibo transfeministak, hutsune hori landu nahi baitute, Iriarten esanetan.

HERRIETAKO ALIANTZETATIK, NAZIOARTEKOETARA

Martxoak 8an mugimendu feministak hainbat aldarri eramango ditu kalera, eta horien artean izango dira Emakumeen Mundu Martxari dagozkienak ere. Ikuspegi internazionala du, eta munduko txoko ugariatuko mugimenduak elkartu eta marko bat eskaintzea du helburuetako bat, Elene Lopetegui Bilguneko kideak gogorarazi digunez: “Euskal Herriko mundu martxan parte hartzea historikoki oso inportantea izan da. Mundu martxaren parte garen herrialde guztiok ez dugu inondik ere berdin pentsatzen, baina balio digu nazioarteko aliantzak egiteko eta hemen gertatzen direnari marko orokor bat jartzeko. Gogorarazten digu zergatik uztartu behar ditugun borroka batzuk”.

Aurten ospatuko du 25. urteurrena Emakumeen Mundu Martxak, eta M8tik hasita antolatuko dituzten nazioarteko



zein tokian tokiko ekintzekin bat egingo du Euskal Herriko mundu martxak ere. Hiru ardatz komun dituzte lantzeko: migrazio politikak, krisi ekosoziala eta indarkeria matxista.

AUSARDIA ETA BORONDATE POLITIKOA

Martxoak 8ko leloak “ausardia” aipatzea arraro egingo zaie zenbaitzuei, agian, baina Lopetegui argitu du zergatia: “Beti esaten dugu ez dugula ausartak izan nahi, baizik eta askeak. Baina ez doa hortik. Gaur egungo testuinguruan oso erraza da jarrera erreazionarioak edukitzea, eroso da. Baina ausardia erakusten du bere burua feminista gisa aldarrikatzen duenak eta mugimendu feministarekin posizionatzen denak; hori berretsi nahi dugu”.

Eta ausartak dira M8an feminismoa goraipatzen duten instituzioak? Lo-

petegiren hitzetan, instituzioek terminologia eta diskurtso feministak “jabetzen” dituzte, “baina aldarririk hutsalak dira gero”. Irakurketa eta “panfleto hutsaletan” ez geratzeko, mugimendu feministak instituzioei “borondate politikoa” eskatzen die, benetako aldaketak egon daitezten: “Indarkeriaren kasuan, udal batek ez tresna dauzka herrian gertatzen diren erasoei aurre egiteko, babesa emateko? Baliabideak behar dira, eta horretarako dirua behar da, eta horretarako behar dira borondate politikoa eta erabakiak hartzeko gogoia”. Soldata arrakala konpontzeko, bestalde, patronalak eta enpresak erabakiak hartu behar dituztela dio. “Benetako politika feministak” egiteko eskatzen dute mugimendu feministatik, eta neurri eraginkorrak hartzeko, more koloreko mezuetan geratu gabe. ●

“ ”

Instituzioak beraiek ere badira oldarraldi matxistaren erantzule

Irene Ruiz, Itaiako kidea

LEIRE ARTOLA ARIN

Martxoak 8aren izaera iraultzailea berreskuratzeko deia egin du Itaia emakumeen antolakunde sozialistak. Irene Ruiz Itaiako kideak azaldu digunez, “oldarraldi erreakzionarioaren eta matxismoaren aurrean proposamen iraultzailea hauspotu eta kontzientzia sozialista hedatu” nahi izan dituzte. Zapatua izanik, inportantzia eman diote goizean goizetik emakume langileek plazak hartzeari; ahalik eta jende gehienarengana heltzeko planteamendua egin dutela ziurtatu du Ruizek. “Erakutsi nahi dugu badela indar politiko bat mahai gaineratzen ari dena emakume langileon emantzipazioa, estrategia sozialistaren bitartez. Uste dugu matxismoari eta ideia erreakzionario eta faxistei aurre egiteko aukera bakarra hori dela”.

Itaiako kideek kezka hartu dute “oldarraldi erreakzionario eta matxista”. Ruizek bereziki arriskutsutzat jo ditu sare sozialetan barreiatzen diren mezuak: “Mezu misoginoak zabaltzen dituzte, eta erreferentziatzko neska eta emakume dirudunek askotan diskurtso arrazista erabiltzeak eragiten du seinalamendu eta bazterketa handiagoa”. Ideia “atzerakoi eta baztertzaila” horiek gizarteko espazio guztietan daudela ohartarazi du, eta emakumeen iruditeri “otzan eta sexualizatua” hedatzen ari dela.

Itaiak faxismoaren aurkako borrokan agente gisa kokatu du bere burua, kontuan hartuta “instituzioei begirako planteamenduen mugak”. Irene Ruizek kritikatu du instituzioak beraiek ere badirela “oldarraldiaren erantzule” eta, beraz, “emakume langileon zapalkuntzaren arduradun”. “Ikusten dugu ezkerreko politikek ekarritako frustrazioaren aurrean eskuina hartzen ari dela alternatiba



ITAI

papera”, eta Itaiak aldarrikatu nahi du eskuinetik kanpo badaudela alternatibak.

Feminismoaren aldarria eta borroka instituzionalizatu egin dira, Ruizen hitzetan, “ezker alderdiaren bitartez eta bertatik eratortzen diren politiken bitartez”. Horrek dituen ondorioak azaldu ditu: “Erreformen zentratzen diren politikek mugak dituzte, eta erreforma gauzatzeko gero eta margen txikiagoa dago; ezkerrek ere gobernuan langileen aurkako neurriak hartu ditu”. Ruizek salatu du langile klasearen borroka alde batera utzi dutela, eta erreformaren zentzua “sinbolikoa” dela egun: “Gainazaleko aldaketek ez dute eragin zuzenik emakume langileon bizitzan”. Indarkeria matxistaren adibidea jarri du: “Aterabidea mugatzen da kasuen kudeaketara, prozesu judizialen edo gizarte zerbitzuen bidez. Are gehiago, aterabide poliziala hauspotzen ari dira”.

Zein da Itaiaren proposamena horren aurrean? Instituzioetatik kanpo kalean antolatzeraz dei egin du antolakundeak, ideia matxista eta faxistei kalean eran-

tzutera, “norabide iraultzailean”. “Jendearekin lan egin behar da, kontzientziazioa landu, askatasun terminoetan ulertuta”. Batik bat garrantzia eman diote emakumeen aurkako jarrereri erantzuteko “espazio zabalak” irekitzeari, salaketatik harago. “Horrek exijitzen du langile klaseko hainbat eragilerekin aliantzak osatzea, baita lan sektore feminizatuetakoa langileekin, migranteekin...”. Emakume langile horiek guztiek Itaian parte hartzeko espazioa dutela azpimarratu du.

Ordea, Ruizek ohartarazi du emakume langileen lan eta bizi baldintzengatik –zaintza lanak barne–, “politikarako denbora oso murrizta” dela. Horregatik, M8 honetan bereziki aldarrikatuko dute borroka sozialistan ere emakume langileek lehen lerroan egon behar dutela: “Borroka egin behar dugu eskubide politiko eta ekonomiko horiek bermatzeko, pixkanaka egoera zaugarrian dauden edo politika egiteko aukera gutxiago dituzten horiek ere integra daitezten”. ●

FERNANDO VALLADARES

Oparotasuna zer den birdefinituta, ulertuko dugu zer dugun irabazteko



Biologian doktorea, CESIC Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko ikerlaria eta Madrilgo Rey Juan Carlos unibertsitateko irakaslea, Fernando Valladares (Mar del Plata, 1965) klima aldaketa eta ingurumen gaietan Espainiako Estatuko ahots kritiko

ezagunenetako bat da. Urteak daramatza dibulgazio lanetan, eta *La Recivilización* (Planeta, 2023) liburua argitaratu du. Euskal Herrira bisita egin duela aprobetxatuta, Antzuolan elkartu gara berarekin, Pikunietan baserriko sukaldean.

 URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zientzialariok urte asko daramazue klimarekin arazo handi bat dugula esaten, baina berdin jarraitzen dugu. Zerk egiten du huts?

Gauza askok egin dute huts eta ez dakit zeinek duen pisu gehiago. Kasu batzuetan, gainera, nahitasun bat dago huts egin dezaten, interesak daudelako eta botere faktikoei ez zaielako batere ongi etortzen. Adibidez, *Retardismoa* negazionismo moduko bat da, ez du aldaketa klimatikoa ukatzen baina esaten du badaudela gauza garrantzitsuagoak. Elon Musk edo Donald Trump denbora askoan sortzen joan garen erupzio bat dira. Gainera, enfasia jarri dugu apokalsipsian, kolapsoan, eta dena pikutara doan ideian, eta horrek ere ez du lagundu. Horrela botatzen baduzu, anestesia-rik gabe, jende askok ez du asimilatzen.

1,5 graduak gainditu ditugula, itsasoa inoiz baino beroago dagoela...

Hainbeste daturen erdian, jendea ohitu egiten da akaso?

“Neke efektua” deitzen zaio horri. Bizitza poliedrikoa da eta iristen da momentu bat arazo askori egin behar diozula aurre, fakturak ordaindu behar dituzula, eta orduan “nahikoa da” esaten duzu. Horregatik saiatu behar gara baikortasuna sortzen eta pentsatzen zenbat irabaz dezakegun. Neke efektuaz hitz egiten dugun gisan, motibazioaz ere hitz egin behar dugu: zergatik jarraitu behar luke ARGIA aldizkariak klima aldaketaz argitaratzen? Komunikazioan ere kreativekoak izan behar dugu.

Rebelión Científica taldean parte hartu duzu. Zein izan behar luke zientziaren funtzioa honetan gutzian?

Lehenik eta behin, gora aniztasuna, ororen gainetik. Behar ditugu euren bolizko dorrean jarraitzen duten zientzialariak,

baina baita konfort gunetik lubakieta-ara aterako direnak ere. Guri gustatzen zaigu ikerketak kongresuetan aurkeztea eta kito, baina hortik ere atera behar dugu. Bestela, zer egiten du ni bezalako biologo batek ekonomiaz hitz egiten? Zientzialariak espezializatuak izateko entrenatu gaituzte, eta horrek aurrera egiten laguntzen gaitu, bai, baina horrelako katastrofe baten aurrean gaudenean... Soluzioa ez dute espezialista batek edo bik ekarriko, gaixo dauden gauza guztien konbinazio bat delako. Hemen, Antzuolan, galdetzen zidaten, ze pauso eman behar da lehenengo? Ahoan bilorik gabe hitz egiten hastea da lehenengo pausoa.

***La Recivilización* liburuan hiru agertoki aurreikusten dituzu desazkundearen aurrean: extintzioa, gobernantza autoritarioa edo eraldaketa.**



Hiru jarri ditut sinplifikatzearren, eta noski, irakurlea hirugarrenera eraman nahi dut.

Baina extintzioari larritasuna kentzen diozu, beste espezie asko bezala *Homo sapiens*-a ere desagertu egingo dela esaten duzu.

Eta hala da. Antzuolako eskolan mamuten argazkiak erakutsi dizkiet gaztetxoei [ikus 34-35. orrialdeak], eta esan diet espezie batentzat normalena desagertzea dela... baina ez dezagun presarik izan! Ematen baitu gizakia desirutzen dagoela desagertzeko. *Homo erectus*-ek, denetan tuntunena zela uste genuen horrek, bi milioi urte iraun zuen; gure espezieak aldiz 300.000 urte baino ez ditu eta ez dakit zenbat geratzen zaigun. Brometan ari naiz, baina ironia eta norbere buruaz barre egitea uste baino inteligentetagoa da, gauzak azaltzerakoan onberagoak izateko.

Gai serioagoetara itzulita, kolapsoaz hitz egitean mundua amaituko den eguna imajinatzen dugu, baina jadanik kolapso txikiak ikusten ari gara. Agian horietatik lezioak atera daitezke?

Gehienez ere lortu dezakeguna da kolapso diferitu bat, derrepentean eta mundu osoan izan beharrean, pixkanaka hedatzen doan kolapso bat; horri esker gauzak zuzentzen eta egokitzen joan ahal izango genuke gizartean eta jardueretan. Erresuma Batukoa, adibidez, kolapso bat izan da, *Brexit*-arekin: globalizazioaren garaian horrelako herrialde batek “paso” esatea, esperimendu ikaragarria da. Krisi ekonomiko handietan holakoak ikusi ditugu.

Desazkunderekin posible izango da oparotasunean bizitzea?

Lehenenik kolektiboki definitu beharko genuke zer den oparotasuna. Jarraitzen badugu pentsatzen oparotasuna dirua dela, gaizki goaz. Zenbat energia behar dugun, haur batek egin dezakeen galdera den arren, erantzuna zaila dauka. Horri buruz artikulu bat aurkitu nuen, [Robert B.] Jackson eta haren kolaboratzaile batzuek sinatua: bederatzi ongizate eta osasun adierazle kontuan hartuta, esaten du Espainia bezalako herrialde batean erdia kontsumituta nahikoa dela osasuntsu eta pozik bizitzeko. Baina proposatzen zaiguna ez da hori, baizik eta oraingo energia bost aldiz biderkatzea, hori bai, dena oso berriztagarria eta garbia.



“Nik ez diot exijituko inori aktibista izatea, baina bai gorrotoaren aurrean nabarmentzea. Jendea isilik geratzen bada, azkenean zer jan eta edan behar dugun ere esango digute”



Ordezkatzeaz hitz egiten da, baina ez hainbeste gutxitzeaz...

Noski, eta energia berriztagarrietara pasatzeak bere horretan ez digu arazoa konponduko, lortuko duguna da muturrerokoa atzeratzea. Efizientziarekin edo ekonomia zirkularrarekin antzera gertatzen da, ez dira inolaz ere irtenbide bat, baina arazoa atzeratzen dute. Zuk lehen ogia zeneukan bi egunetarako, eta efizienteagoa zarenez orain lau egunetarako izango duzu, baina azkenean ogia amaitu egingo da.

Aldiz, oparotasuna zer den birdefinitzen badugu, ulertuko dugu zer daukagun irabazteko. Badago kontzeptu bat oso boltxebikea dena, aberastasunaren banaketa. Lehenengo mailako termodinamikarekin ikasten da hori: aberastasuna banatzea baliabideak efizientziaz

erabiltzeko modu bat da, eta benetan osasuntsuagoak eta zoriontsuagoak izango gara, baita gehien dutenak ere. Horregatik ikusten dut krisi ekosoziala aukera bat bezala.

Nabari da saiatzen zarela gauzak ikuspegi baikorrez azaltzen.

Ez dakit, behintzat bakoitzak eraman dezala mezu horren zatitxo bat etxera. Zeini esango diozu ezin duela Karibera hegazkinez joan, txartela ordaindu badezake? Debekatuta Karibera bidaiatzea! Zer lortuko duzu? Debekatu burrean, kontatzen badiozu energia aurreztuko dugula, hobeto biziko garela...

Naturarekin “harreman toxiko” bat daukagu eredu kapitalistaren ondorioz, diozu. Zer behar da eredu hori aldatzeko?

Niri asko gustatzen zait “aldaketarako matematikaren” gaia ateratzea. Matematika horiek ez dute gehiengoz hitz egiten, ez duzu gehiengorik behar, erabaki bat hartzen saiatzeko oso modu baldarra iruditzen zait niri gehiengoarena. Aldaketarako matematiketik diote, modeloen arabera, biztanleriaren %12-13tik %18-19ra bitartean nahikoa dela dena aldatzeko. Matematikak gauza zehatza dira, baina zorionez gizateria ez da soilik zenbaki kontu bat eta beste osagai batzuk ere badaude, posible egiten dutena oso zaila iruditzen zaiguna aldatzea. Entzungo zenuen zerbait inflexio-puntu klimatikoek buruz... ba inflexio-puntu humanoak ere badaude.



Baina horretarako lehenik aldaketan sinetsi eta konfiantza eduki behar da, ezta?

Aurrekoan irakurri nuen, baliabideak eta azken petrolio tanta ustiatzen jarraitu ahal izateko, sistemak beharrezkoa duela demokrazia hondatzea. Eta nola egiten du hori? Historian askotan egin izan duen bezala, desinformazioarekin. Azkenerako ez duzu ezer sinesten eta benetako gaitasuna duten lider naturalekiko konfiantza ere galtzen duzu.

Klima larrialdia zientziaren eta datu hutsen bidez aztertu ohi da. Baina jendearen emozioak eta erreakzioak ulertzeko beste begirada bat behar da?

Humanitatearen kontu batez ari bagara, erreprimaturiko jendea ere inplikatu behar da elkarrizketa horretan. "Jakintsuen" komiteak ikusten badituzu, gehienak gizonezkoak, zuriak eta 50 urtetik gorako fisikariak edo ingeniariak dira. Non daude inoiz ez daudenak? Non daude antropologoak eta soziologoak? Klimari buruzko dekalogoak idazterakoan jabetu gara komunikazioaren arloan ez garela jendearengana iristen ari. Eta emozioekin ere badago eztabaida, zientzialariok "pasioz" idatzi behar ote dugun edo militantek izan gaitezkeen... Nola ez gara izango! Inoiz baino gehiago behar dugu hori orain. Nik desobedientzia zibileko ekintzak egin izan ditut, jasotako sariez disfrutatzen egon beharrean.

Mehatxuak ere jaso dituzu Valentziako DANaren harira

"Zorionez gizateria ez da soilik zenbaki kontu bat, eta inflexio-puntu klimatikoak dauden bezala, inflexio-puntu humanoak ere badaude"



egindako adierazpenengatik.

Eta beldurra pasa dut, baina ondorengo babesak erakutsi dit jendeari ez zaiola gustatzen gorroto giro hori. Hala ere, iruditzen zait gizartea lozorroan dagoela duela hamarkada askotik hona. Pentsatu izan dugu gerra aspaldiko kontua dela, gazta onik ez zaigula faltako... eta egia deserosoen aurrean begiak itxi ditugu. Injustizia sozialen, giza eskubide urraketen eta ingurumen lege kaltegarrien aurrean ez nabarmentzea hautatu dugu.

Nabarmendu?

Bai. Nik ez diot inori exijituko aktibista izatea, baina bai gorrotoaren aurrean nabarmentzea. Are gehiago Trumpekin eta antzekoekin gainera datorkiguna ikusita. Nahikoa da sare sozialetan *like* sakatzea, edo ile-apaindegian astakeriak botatzen ari denari "uste dut ezetz"

esatea. Ultraeskuina kutsu oso biolentoa ari da hartzen, eta jendea isilik geratzen bada, azkenean zer jan edo edan behar dugun ere esango digute. Eta matxismoa, pederastia edo nazismoa marra gorriak diren moduan, klima aldaketa ere bada, milioika lagun hiltzen dituelako.

Azaroan Kolonbian egin zen COP16an, bioaniztasun galeraren arazoa CO2 isurien mailan jarri zen lehen aldiz. Zergatik ez zaio orain arte halako garrantzirik eman?

Planetak dituen mugen artean, bioaniztasun galerarena da gehien gainditu duguna, askogatik. Klima aldaketarekin baino egoera arriskutsuagoan gaude bioaniztasun galerarekin, baina herrialde kapitalistetan aspalditik datorren kosmobisio arazo bat dago atzean: gizakia "espezie aukeratua" dela pentsatu izan da, dena dagoela bere zerbitzura.

Lehen motibazioez hitz egin duzu, zein nabarmenduko zenuke elkarrizketa amaitzeko?

Gogoratu dezagun zenbat irabazi deza-kegun gauzak beste modu batera egin da, ez dezagun sakrifizio bezala hartu. Beldurra, adibidez, ez da motibazio nahikoa. Badaude gauza batzuk ez direnak batere ziurrak eta zoriaren esku daudenak. Everestera oxigenorik gabe igotzea teknikoki ezinezkoa omen zen, baina eskalatazailak ez zuten serio hartu eta esan zuten, banoa! Ziurra ez dena posible egite hori oso humanoa da, eta esperantza sortzen du. ●

Eredu inspiratzaileak martxan jartzera animatu ditu Antzuolako ikasleak Valladaresek

Nola azaldu 10-12 urteko ikasleei bioaniztasunaren galerak eta klima aldaketaren ondorioek duten larritasuna, “ez dago ezer egiterik” ideia alboratu eta planetaren alde elkarrekin zer egin dezakegun gogoetatzeko? Fernando Valladares biologoak hainbat gako eman dizkie Antzuolako haurrei. “Aprobetxatu naturarekin hemen duzuen harremana; naturarekin harreman ona izateak osasuntsu eta zoriontsu egiten gaitu”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Antzuolara hitzaldi bat ematera joan behar zuela-eta, Valladaresek berak egin zuen galdera: eta herriko eskolara haurrekin solastatzera gerturatzan banaiz? Ez alferrik, belaunaldi berrien artean bioaniztasunaren eta klima aldaketaren inguruko dibulgatzaile porrokatua da zientzialaria. Bi saio izan ditu Antzuolako herri ikastetxean: bata Lehen Hezkuntzako 5. mailako 21 ikasleekin, bioaniztasunaz (10-11 urte inguruko haurrekin), bestea Lehen Hezkuntzako 6. mailako 26 ikasleekin, klima aldaketaz (11-12 urte ingurukoekin).

“Ekosistema da makina handi bat eta espezieak dira makina horretako piezak; torlojuak eta enparauak kendu eta kendu bagabiltza, azkenerako makinak ezin du aurrera egin, izorratu egiten da; berdin ekosistemarekin, espezie bakoitzak gainera bere funtzioa baitu”. Halaxe mintzatu zaie lehenengo saioko haurrei. Erleen adibidea jarri du, eta espezieen galeraz aritu dira. “Historian, espezieak agertu eta desagertu egiten dira, naturala da, arazoa da gizakia dena endredatzen hasi dela, aurrez inoiz bizi gabeko mailatan endredatzen, eta desagerrarazten ari dela agertzen direnak baino espezie gehiago”.

“Ekosistema da makina handi bat eta espezieak dira makina horretako piezak; torlojuak kendu eta kendu bagabiltza, azkenerako makina izorratu egiten da; berdin ekosistemarekin”



Espezieen bost suntsipen handi izan dira historian, horiez aritu dira, bereziki dinosauroez, haurrek galdera eta iruzkin mordoa zituztelako, eta azkenerako, Valladaresen eskema guztiak apurtu eta galdera batetik bestera eta hari-mutur batetik bestera elkarrekin solasean aritu dira, biologoak prestatuta zuen aurkezpenetik urrun: 2032an Lurra jotzeko arriskua duen meteoritoaz aritu dira, zooetan dauden animaliez, *Lucy australopithecus*az, hainbat auzotan jarri diren katu-kolonien arriskuez –katuek txoritxoak, sugandilak

eta inguruko bioaniztasuna ehizatzen eta akabatzen dute “eta ez dugu hainbeste katu beharrik, utzi bakean katuak, eurak ere ez dira kolonia-zaleak, autonomoak dira”–, desagertutako animaliak fosiletako DNA arrastoetatik berreskuratzeaz, ikusmenaren alde eboluzioan gizakiok usaimenean izan genuen galeraz...

Gustura asko aritu da Valladares umeekin, haien jakin-minari segika, baina mezu garbi batzuk ere eman nahi izan ditu: espezieen seigarren suntsipen handia bizitzen ari gara uneotan, kalkulatzen dute desagertzeko arriskuan direla milioi bat landare eta animalia espezie –bioaniztasun osoaren %11,5 inguru–, “eta lehenengo aldiz historian, espezie bakar batek eragin du suntsipen hori: gizakiok. Ez da gaiztoak garelako, tontoak garelako baizik”. Naturarekin dugun harremana zaindu behar dugula transmititu die ikasleei, Antzuolan zorteko direla, naturaz inguratuta daudelako, baina munduko biztanleen %70 hirietan bizi dela, naturarekin apenas harremanik izan gabe, eta haurrak harrিতuta utzi dituen anekdota kontatu die: behin solasaldi batera joan zen eta bertako umeak tximeleten beldur ziren, ez zituztelako inoiz ikusi. “Aprobetxatu naturarekin duzuen harremana;



Goiko irudian, LH 5eko hurrekin; behekoan, LH 6koekin.

naturarekin harremanik ez duenak ez du ezagutzen, eta ezagutzen ez duzun horri ez diozu baliorik ematen, ez duzu zaintzen”. Eta jakina denez, naturaren eta eremu berdeen onurak asko dira, gizakion eta planetaren osasunerako, besteak beste.

“GALDERA ONAK DIRA KONPONBIDERAKO BIDEA”

Bigarren saioan, borobilean eserita zeuden ikasle helduxeagoei mezu bera eman die biologoak: aldaketa klimatikoak ziklikoak izan dira historian, baina osagai berria du azken honek: gizakiok gara eragile nagusietako bat. Lurra planeta berotegi erraldoi bihurtzen ari diren gasez hitz egin die Valladaresen ikasleei, eta klima aldaketak dituen arriskuez. Temperatura gradu bat igotzeak, adibidez, esan nahi du atmosferan hezetasuna %7 handitzea, eta beraz, euri lan-

“Entzun ohi da ezer gutxi eragin dezakegula, baina ongi egiten dena eredu ere bada, besteek martxan jarri ditzaketen adibide eta ereduak dira, eta horrek efektu biderkatzailea du”



garraren orde zuri-jasak nagusitzea. Espazioko zaborra, gizakion eraginez planetaren ardatza mugitzera iritsi izana, itsas-mailaren gorakada (“ura, berotzen denean, dilatatu egiten delako eta

gehiago okupatzen duelako”) eta itsaso eta ibaiak gainezka egiteko arrazoiak izan dituzte hizpide, besteak beste.

“Gizakiak gara eta klima jakin bat behar dugu, bestela ur falta, gosea, gerrak... orokortuko dira, baina ahazten zaigu gizakiak garela”. Eta helduei errieta egin beharko lieketela esan die gazteei: etorkizuneko belaunaldien baliabideak erabiltzen eta agortzen ari gara. Planeta bat dugu eta egungo erritmoan bi planeta eta erdi bagenitu bezala jokatzen dugu, planetak ekoizten duena baino azkarrago ari gara kontsumitzen: “Ezinezkoa da hori mantentzea; frenatzea dagokigu, gutxiago kontsumitzea, eta ez da zerbait txarra, ez da sekulako sufrimendua, jokoaren arauetan sartzea baizik. Saskibaloian ezin diozu baloiari hankarekin eman, honetan berdin: planetak funtzionatzeko duen modura egokitu behar dugu, erokeriak egiteari utzi, besterik ez”.

Argi du biologoak: “Soluzioaren parte izan behar dugu, eta zenbat eta gehiago izan, eraginkorragoak izango gara”. Lantzen al duzue aldaketa klimatikoa eskolan? galdetu dio irakasleari, eta honek esan dio batez ere egunerokoari lotuta jorratzen dutela: birziklapena, baratzea, argi eta gasaren erabilera, neurriko kontsumoa... kontzientziazio eta sentsibilizaziotik. Ura aurrezteko ikastetxean egin duten proiektu arrakastatsua azaldu du, esaterako.

Horren balioa nabarmendu du biologoak: “Entzun ohi da norberak bere aletxoa jartzen duela, ezer gutxi eragin dezakegula, baina ongi egiten dena adibide eta eredu ere bada, beste eskola edota herri batzuetan ikusi eta martxan jarri ditzaketen adibide eta ereduak dira, eta horrek efektu biderkatzailea du; ederra da funtzionatzen eta inspiratzen duten ereduak martxan jartzea, komunitatean, zeren nor bere kasa ez da eraginkorra, komunitateak du indarra”. Greta Thunberg-ez mintzatu zaie –ezagutzen al duten galdetuta, inork ez du jakin esaten nor den–, klima larrialdiaz ohartarazteko bere borrokaz, gazteen artean bihurturiko fenomenoaz, Fridays For Future olatuaz.

Galdera zaparrada amaieran etorri da, eta gogoz gelditu dira ikasleak, denborak agindu baitu bukatzeko ordua dela. Joan aurretik, Valladaresen azken mezu bat utzi die ikasleei: “Galdera onak dira konponbiderako bidea, pentsatuarazten duten galderak; jakintzaren oinarria da galdetzea”. ●

“ ”

“Idaztean, lehentasuna da elkarrizketatua bizirik ateratzea”

KARLOS ZURUTUZA

Karlos Zurutuza (Donostia, 1971), kazetari ezaguna da ARGIAko irakurlearentzat, elkarrizketa eta erreportaje ugari egin baititu aldizkari honetan. Atzerriko gatazka guneetako bizipenak ekarri ohi ditu berarekin: Kurdistan, Balutxistan, Iran... hamaika leku landu ditu, batez ere Ekialde Erdian. Irakaskuntzarekin

partekatu ohi du zeregin hori eta, gaur egun, Tolosako Uzturpe Ikastolan ari da irakasle. Iaz *Una trinchera en Marte. Historias de Baluchistán* (Lubaki bat Marten. Balutxistango historiak. Libros del K.O) liburua argitaratu zuen. Arras liburu interesgarria da eta horren gainean jardun dugu ondorengo lerroetan.

 XABIER LETONA BITERI

 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Balutxistani buruzko zure liburua 2024koa da, baina 2009an ere idazten zenuen balutxeei buruz ARGIA. Zergatik balutxeak?

Inon ez zeudelako. Agentzia handien eraginez fokua beste toki batzuetan jartzen dugu, eta gatazka eta jende batzuk beti geratzen dira horietatik kanpo. Balutxeak dira horren paradigma argiena, kurduak baino askoz gehiago. Kazetari guztiek egin beharko lukete halako ariketa bat: zer falta da hemen? Balutxeei buruz idaztea luxu hutsa da eta, aldi berean, ardura eta erronka handia.

Oso historia gogorrek kontatzen dituzu liburuan. Pakistangoak dira agian gogorrenak, han ezer gutxi behar da betirako desagertzeko.

Hala da bai, eta sufrimendu hori erabat ezezaguna egiten zaigu. Liburua egiteko oztopo nagusia sarbidea izan da, hara sartzea oso zaila izan da eta. Hemen guztira lau bidaia daude, eta ez daude gehiago Pakistanen betoa dudalako, Iranen ere bai eta Afganistanen talibanak itzuli direlako. Beraz, han egoteaz gain, balutxeak topatu behar izan ditut European, elkarrizketak online egin...

Hamabost-hogei milioi pertsonako herria dela diozu.

Bai, baina ez dago zehatz mehatz zenbat diren jakiterik. Ez dago eroldarik, baina hamabost milioi inguru esaten da. Horien erdia edo gehiago Pakistanen daude, eta besteak Iranen eta Afganistanen.

Zerbait aldarrikatzen duen edozein erakundetan nabarmentzen den balutxeak badu desagertzeko edo kartzelara joateko aukera handia. Eta hala ere, beti ateratzen dira lider berriak. Horrela oso zaila da ezer finkatzea. Nola bizi dute hori?



Beraiek badakite zertan ari diren. Sarrri baduzu sentsazioa “gorpu” bati ari zarela egiten elkarrizketa. Elkarrizketa bukatzen da, agur esaten diogu elkarri, eta “honek noiz arte iraungo du?”, galdetzen diozu zure buruari. Horietako dezente desagerrarazi dituzte edo hilda agertu dira.

Kazetari gisa hori oso gogorra da.

Iturria babestea beti da lehentasuna. Elkarrizketa prestatzean edo idaztean, segurtasunaren gaia oso kontuan izan behar duzu. Beste izen bat erabili daitekeela esaten zaie... Pakistangoek agian ez dute irakurriko ARGIA n atera genuena, baina Al Jazeera-n, *The Diplomat*-en edota ingelesezko prentsan ateratakoa bai, eta halakoetan artikulua asko ateratu ditut. Beraz, idaztean, hori oso kontuan izan behar duzu, zeren eta lehentasuna jende hori bizirik ateratzea da.

Liburuan ikusten da sekulako kontrola dagoela, poliziak, soldaduak, zerbitzu sekretua... zu ere ikusiko zaituzte norekin ari zaren.

Bai, eta hori oso ongi zaindu behar duzu, hein handi batean zerorrek markatu dezakezulako jendea. Elkarrizketak oso modu seguruan egin behar dira. Gaur egun, adibidez, horietako asko Internetez eginak daude, han bertan eginez gero horietako askorentzat oso arriskutsua delako.

Pakistanera joan nintzen lehen aldian zorte handia izan nuen, joan aurretik hango batek dena oso ongi prestatu zidalako eta horrela elkarrizketa seguruak egin ahal izan genituen. Toki publikoetan inoiz ere ez genituen egiten, beti denda baten barruko aldean, biltegi batean, norbaiten etxean...

Harremanetarako segurtasun protokoloa asko zaindu behar da. Esaterako, ezin zara inoren etxean gelditu lotan. Beraz, hotel anonimo batean geratzen zara, eta batetik bestera mugitzea ere ez da txantxetako.

Balutxistenen izan al zenuen arazorik Poliziarekin-edo?

Ez, suerte itzela izan nuen. Gero, haien artean badago oso ezagunak diren liderak, eta horietako batzuk ukitu ezinak dira, zeren eta haien aurka joz gero, badakite oldarraldia itzela izango dela.

Suniak dira eta haien gizarteak oso kontserbadoreak dira,

baina liburuan hartzen den inpresioa da balutxe mugimendu antolatua bederen ez dela horren kontserbadorea.

Pakistango Balutxistaren gizarte eraldaketa prozesu oso polita gertatzen ari da, eta emakumezkoak lidergoa hartzen ari dira. Adibidez, iaz ikusi genuen nola atera zen plazara Mahrang Baloch izeneko neska. Hark gidatu zuen martxa bat Balutxistango Islamabaderaino eta sekulako oihartzuna izan zuen. Nik orain ezin dut hara joan, baina argazkietan ikusten ditut hango ohiko janzkera duten gizon zaharrak neska horren erretratua dutela buru gainean. Hori sekulakoa da, esan nahi du neska horiek lortu dutela egundoko errespetua, eta neurri batean gizarte eraldatzen ari direla. Hura oso gizarte tribala da, baina ikusten da emakume horiek gidatutako mugimendu zibila sortzen ari dela.

Zer diozu Irango balutxeen egoeraz?

Errepresioa itzela da, Pakistango baino askoz gogorragoa. Esan liteke balutxeak direla munduko herririk exekutatuena. Iranek herritar asko exekutatzen ditu urtero, zerrenda beltz horretako lehenak kurduak dira eta ondoren balutxeak. Balutxeak Irango populazioaren %5 besterik ez dira, eta exekutatuen artean beti daude hor, goi-goian. Irango segurtasun indarren kontrola oso handia da, eta horrek biziki zailtzen du jendearekin biltzea, elkarrizketak egitea... Lurraldea beti zapaldu behar da, bertan egotea garrantzitsua da, baina han bertan ez nuen elkarrizketa bakarra ere egin, denak atzerrian edo Internetekoak izan ziren. Han blogariak, homosexualak... edonor exekutatzen dute, ohikoan plazaren erdian garabi batetik urkatuta.

Gero Balutxistango gerrilla mugimenduak daude, hainbat eta askotarikoak. Zein neurritan eragiten diote Pakistan?

Ikuspegi ekonomikotik Pakistango aliatirik garrantzitsuena Txina da eta Txina ari da ur sakoneko portu bat eraikitzen Pakistango kostan, Gwadarreko portua. Hortik azpiegitura ugari eraiki dira, trenbideak, gas hoditeriak... eta gerrillek horiei edo portuari berari eraso egiten diete. Balutxeak jabetu dira Pakistango Polizia edo armadaren aurka jota ez doazela inora, baina txinatar interesen aurka egiteak indar handia ematen die. 2018tik aurrera, halaber, eraso suizidei ere ekin

“ ”

Irango errepresioa itzela da, Pakistango baino askoz gogorragoa. Esan liteke balutxeak direla munduko herririk exekutatuena

diete, ez ikuspegi erlijiosotik, baizik eta haien nazionalismoak eraginda.

Milaka errefuxiatu balutxe daudela diozu, baina NBeko txostenetan ez direla existitzen salatzen duzu. Zer gertatzen da?

NBEk baditu hainbat adar, eta badakite balutxe errefuxiatuen gaia ateratzen badute, akaso Pakistango hainbat egoitza itxiko dizkietela. Afganistango gerra dela eta, hango errefuxiatu gehien Pakistanen pilatu izan dira eta, hortaz, errefuxiatuen negozioa itzela izan da han. Beraz, NBE isildu egiten da.

Abdullah Öcalanek bultzatuta, PKK-k uko egin dio kurduen estatu bateratua sortzeari. Zein da euren batasunari buruzko balutxeen ikuspegia?

Bigarren Mundu Gerra eta gero, 1947an ingelesen handik alde egin zutenean, balutxeek euren estatua aldarrikatu zuten, baina handik zortzi hilabetera Pakistanek bereganatu zuen. Britainiarrak XIX. mendean iritsi aurretik ere, 300 urtez protektoratu bat izan zuten; ez zen nazio-estatu bat, baina bai 300 urtez bere kabuz ibili zen proiektu politikoa. Kurduekin harreman handia dute eta haien eragina ere iristen zaie, horregatik balutxeen artean ere batzuek onartzen dute ezin dituztela egungo mugak aldatu, eta beraz, demokratizazioa eta deszentralizazioa dira haien helburuak. Siriako kurduak ere horretan ari dira. Kurduak eta balutxeek etnikoki eta historikoki harreman handia dute; adibidez, haien hizkuntzen jatorria berdina da.

Gerrilla balutxeekin egindako elkarrizketak ere agertzen dira. Batzuetan haserretu ere egin zara gerrillarekin, adibidez Lashkar-e-Balochistan-ekin (Balutxistango

Armada) egindako hartan.

Elkarrizketatutako lehen gerrilla taldea izan zen hura, ondorengoak elkarrizketa sendagoak izan ziren. Norbaitekin iritsi nintzen haien babestokira, baina haiek ez zuten ez elkarrizketarik egin nahi, ez argazkirik... eta orduan nik esaten nuen, "baina zertarako etorri naiz orduan? Zertarako hartu dut halako arriskua?", zeren eta hura arriskutsua izan baitzen. Hain zeuden isolatuak, ez zirela jabetzen elkarrizketak izan zezakeen garrantzia propagandaren ikuspegitik. Hain zuzen horregatik, ohikoan talde gerrillariak pozik hartzen zaituzte, baina ez zen haien kasua izan.

Sarrera debekatua duzu herrialde pila batean: Iran, Pakistan, Maroko, Aljeria, Siria, Libia, Azerbaijan... Debekuek indarrean diraute?

Ez dakit. Kontua da joanez gero ez nintzatekeela lasai egongo, ez nigatik bakarrik, bereziki hangoengatik. Nahiago dut halako arriskurik ez hartzea.

Euskaraz, gaztelania eta ingelesez idazten duzu gai horiei buruz. Sumatzen duzu desberdintasunik hartzailearengan?

Euskaraz idazten duzunean beste enpata bat sumatzen duzu, hemen badago bestelako interesa haien nazioa, hizkuntza eta kulturagatik. Guk ere antzerako arazoak dauzkagu, herrialde handietako jendeak urrutia egiten dituzten hala-koak.

Izan dituzu arazoak Pakistan, Iran edo halakoekin idatzi dituzunengatik?

Ez, arazoak batez ere izan dira kurduen eta balutxeen hainbat sektoreekin. Ni kazetaria naiz, eta ikusitako errealitatek abiatu behar dut, irakurleari erreminta batzuk emanda, hark bere ondorioak atera ditzan. Esan izan didate hainbat ikuspegik kalte egin diezaietkeela... baina nire ustez, idatzitakoak hango egoerak ulertzeko osagai klabeak izan dira. Ohikoan e-mailez bidalitako iruzkinak izan dira, eta edukazio handiz egindakoak.

Nimroz, Afganistan. Iritsi eta kokatzea ohi baino zailagoa izango zela uste zenuen, baina agian horrek ere bere alde ona izango zuela: halako tokietan kazetariak sarri antzeko elkarrizketak eta antzeko historiak kontatzen dituzuela diozu,



eta ez zenuela horietan erori nahi.

Tokian tokiko inertziak daude, hainbatetan itzultzaile bertsuak denentzat lanean, eta horietan askotan bukatzen dugu antzeko gauzak egiten. Zer zuen Balutxistanek? Onerako eta txarrerako han zu bakarrik zinela, esploratu gabeko lurraldea da, hortik dator kio titulua liburuari: *Una trinchera en Marte*.

Geopolitika apur bat. Turkiak beti izan du indar handia Ekialde Erdian, baina orain indartzen ari da bere eragina.

Turkiak azken 200 urteetako emaitzarik handiena lortu du bere menpeko aliatuek Damasko hartu dutenean. Orain Ekialde Erdiko aktore garrantzitsuena bihurtu da, Iranen aurretik, eta agian Israel beraren aurretik ere bai. Turkia eskualdeko minbizia da, etengabe hedatzen ari dena. Kurduak ederto asko dakite hori. Estatu Islamikoaren fenomenoak Turkiak hauspotu du eta mamu hori ere oraindik hor dago. Jakina, Turkia NA-

“ ”

**Andoni Lubaki
argazkilariarekin eta
atzerriko beste kazetari
batzuekin Armeniara
eta Irakera joaten gara
urtero hango kazetariak
formatzera**

Toko kide oso garrantzitsua da, baina Turkiari egiten uzten zaio. Ikusiko dugu noraino.

PKK-k betirako egon beharko du gerran Turkiarekin?

Turkiak orain ere aukera ona zuen bakearen alde egiteko, baina beti gerra

aukeratzen du. Esaten da PKKren eta Turkiaren arteko prozesu bat badagoela, baina ikusiko da. PKK-k bakearen aldeko keinu asko egin ditu, baina Turkiak behin ere ez ditu bete izan lortutako akordioak. Orain Turkiak hartu duen indarrarekin... ez nago oso baikor. Siria-ko kurduak ere egunero bonbardatzen ditu, eta bere kontrakotzat jotzen dituen talde islamistak hauspotu ere bai.

Ba al duzu berriz kazetaritza mota hori egitera ateratzeko gogorik?

Nekez bizi daiteke horretaz, sektorea oso prekariora baita. Horrez gain, orain sentitzen dut nire ekarpena bestelakoa izan daitekeela. Nire erreportari eskarmentua gatazka eremuetan bizi diren kazetari gazteekin partekatzen dut, hainbat formazio ikastaroren bidez. Andoni Lubaki argazkilariarekin eta atzerriko beste kazetari batzuekin Armeniara eta Irakera joaten gara urtero hango kazetariak formatzera. Orain, uste dut hori dela egin dezakegun emankorrena. ●

“Garrantzitsua da Down sindromea dunok oholtzan ikustea”

Gazteagotan baino lotsa handiagoa dauka, baina horrek ez dio saltsa askotan ibiltzeko gogoia kentzen Leire Zabalza Santestebani (Iruñea, 1990). Beste gauza askoren artean, Motxila 21 musika taldeko kidea da. Nabarmendu du musika gauza asko aldarrikatzeko bide izan daitekeela; hala nola feminismoa, ekologismoa eta errespetua.

 OLAIA L. GARAIALDE



Leire Zabalza

Hiru ahizpa-nebetan erdikoa da Leire Zabalza Santesteban. Bereziki gustuko du kantatzea, baita dantzatzea, antzeztea, futboleko jokatzeta eta lagunekin ibiltzea ere. Motxila 21 taldeko kideak rock-and-rolla eta popa gustuko ditu. El Drogas, Marea, Aitana, David Bisbal eta Melendi artistak atsegin ditu, besteak beste. Motxila 21 taldean, tinbala jotzen du eta kantatzen ere aritzen da: “Badakit ongi egiten dugula, baina kontzertuen aurretik oso urduri jartzen naiz, eta poliki-poliki askatzen noa”.

2005ean sortu zen Motxila 21, eta Zabalza bi urte geroago sartu zen. Egun, hogeita bi kideek osatzen dute banda. Horietako asko Nafarroako Down Syndromearen elkarteko erabiltzaileak dira eta besteak boluntarioak. “Hasieran ez genuen kontzertutik emateko asmorik; elkarteko lagunaren arteko musika talde bat zen”, azaldu du Zabalzak. Orduetik bi disko kaleratu dituzte: *No*

“Nire kantak kantatzen ditudanean transformatu egiten naiz”

Somos Distintos eta *Ama Lurra*. Gainera, euren arteko harremana “gehiago” indartu dute.

Disko horien bidez, kezka eta aldarrikapen asko taularatu dituzte; hala nola feminismoa, sexualitatea, aniztasuna eta ekologismoa landu dituzte. Zabalzak uste du musika borrokarako tresna izan daitekeela. Horregatik, *Somos La Banda Motxila 21* izeneko kantuan argi uzten dute nor diren eta zertara datozen: “Motxila 21 banda gara eta zarata egitera gatoz”, diote kantuan.

Horrez gain, *Ama Lurra* diskoak errespetua sustatzea du helburu. Ber-

tan ageri den *Sueños de futuro* rap feminista gogora ekarri du Zabalzak: “Emakumeekin matxistak direnekin matxista izateari uzteko rap bat da”. Kantak mezu argia dauka: “Errespetuz jokatzeta gustuko dut. Baita errespetu nazaten ere. Zu ez bazara gai, mezezi duzuna emango dizut”. Bakarka kantatzen du, eta horrelakoetan itxura “serioagoa” edo “arduratsua” erakusten duela dio, baina poliki-poliki lasaitu egiten da: “Nire kantak kantatzen ditudanean transformatu egiten naiz”.

Animalien eskubideekin ere inplikaturata dago Zabalza, eta begetarianoa da: “Guk jateko animaliak hiltzea ez dut gustuko. Adibidez, txakurrei beldurra diet, baina aldi berean errespetatzen ditut eta ez dut inork tratatu txarrik edo minik ematerik nahi”.

Bandaren helburuetako bat ere bada Down sindromea ikusaraztea eta horren inguruko aurreiritziak deseraikitzea. Zabalzak uste du urteekin jendearen begirada aldatuz joan dela, eta



ZABALZAK UTZIA



ZABALZAK UTZIA

geroz eta inklusiboagoak direla espazioak; tartean, bestarako lekuak: "Gustuko dut parrandan lagunekin egotea. Orokorrean geroz eta gehiago errespetatzen dute eta gaituzte". Besten inguruan mintzatzen ari delarik, 2018an Ibai Ganuzarekin batera Motxila 21 bandaren izenean Iruñeko sanfermine-tako txupinazoa bota zuen unearekin

oroitu da: "Oso polita izan zen goitik plaza ikustea".

Errespetatua sentitzen den arren, erreferente desgaituak falta direla uste du. Izan ere, ez du txikitari izandako erreferente desgaiturik gogoratzen. Horregatik, uste du beharrezkoa dela taula hartzea: "Gauza asko egin ditzakegu. Garrantzitsua da Down sindromedunok

oholtzan ikustea". Gaineratu du Motxila 21 taldeko kideak erreferente bihurtu direla, eta jendearen nahia eta gogoia piztu dituela taldeak. Horrekin batera, jendea animatu nahi du, Down Sindromearen Nazioarteko egunean, martxoaren 21ean, Iruñean eginen duten kontzertura. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Eskuak. Horien bidez gauza asko ukitu ditzakedalako; hala nola katilua [kafe bat eskutan], jendea, nire senarra..."



BIZI BARATZEA ORRIA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

'Bizi Baratzea Orria' agerkaria tolestutako orri handi bat da. Alde batean hainbat gai irburuzko informazioa jasoko du, eta bestaldean poster bat edukiko du. Argazkietan duzue inspirazio iturria: 'Esprit Autonome' aldizkari frantziarra.

Argitalpen berri bat urtaro bakoitzean: orri handi bat

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez badaukazu behintzat izugarritzko interesik ARGIA guztiak gordetzeko, edo ez bazara bizi behintzat gordeleku handi bat duen etxe batean, ziur zu ere joana izango zarela paperezko poltsa bete aldizkari zahar hartuta edukiontzi urdinera –edo zorte pixka batekin atez ateko hondakin bilketa sistema jarria duen herri batean bizi bazara, zure kaketik zintzilik utziko zenuen kubo bete ARGIA-. Ez nuke mezu okerra bidali nahi, fisikoaren aldekoa naiz ni, pantailaren aurrean irakurri zalea bainoago. Kontatzera natorrena da, ARGIAren harpidedunak laster jasotzen hasiko zaretela bota beharrik izango ez duzuen irakurgai bat.

Desberdina izango da. Orria. Berezia edukiz, idazkeraz, diseinuz, formatuz. Duela urte batzuk ARGIAko erredakziora lankide batek ekarri zuen frantsesezko *Esprit Autonome* aldizkari aski kurio-

so bat. Tolesturaz betetako orri handia, plegu bakoitzean eduki bat agertzeko antolatua. “Horrelako zerbait egin behar genuke” hartatik pasa dira sasoi batzuk, beti egitekoen zerrendan, eta azkenean egin diote bidea. *Bizi Baratzea, lurrari begiratzen diotenen Orria* du izena eta urtaro bakoitzarekin kaleratuko da: eduki praktikoak izango ditu batetik, eta gozamenetik ikastekoak, bestetik; askotariko gaiak ekarriko ditu, ingurumenari, naturari, laborantzari lotutakoak eta, orri handian, poster eder bat ekarriko du, argazkiz edo ilustrazioz osatua.


Bizi Baratzea proiektuak badu bere komunitatea: webgunea maiz kontsultatzen dutenak, astelehenero 11.000 lagunek (11.000!) posta elektronikoz jasotzen dute buletina, 2.000 lagunek jarraitzen dute Telegram kanala, Egona-rria podcasta, eta Jakoba Errekondoren asteko lanek badute publiko fidela... Ko-

munitate horretan, bada erritmo lasaigoan bizitzeko hautua egin duen jende perfla. Horregatik egingo du bat aldizkari berri honek urtaroeekin, urtaroe-tan asteek eta egunek baino, naturaren zikloek agintzen baitute eta denborak patxadatsuagoak dira.

ARGIAko harpidedun guztiek jasoko dute etxean *Orria*, baina harpidedun ez denak ere aukera izango du orri honetara soilik harpidetzeko. Martxoko azken astean argitaratuko da lehena, udaberriarekin batera. Urtaro oso bat izango dugu dena goitik behera plazeretik irakurri eta aurreneko posterra paretan zintzilikatzeko. ●

Martxoaren 10etik aurrera
informazio gehiago
bizibaratzea.eus helbidean

Urruñako emakumeak, matxino eta biktima



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Urruña, 1750eko martxoaren 1a. Herriko hainbat emakumek kaleak hartu zituzten Frantziako Gobernuak ezarritako tabakoaren gaineko zergaren aurka protesta egiteko. Gobernuak matxinada itzaltzeko armada bidaltzea erabaki zuen, zehazki, Arloneko destakamentu bat. Militarrek tiroz erantzun zieten emakumeen protestei eta, ondorioz, lau pertsona hil ziren: Gratianne Suhibar, Marie Dithurbide, Agustina Irigoity eta Jan Lapis. Azken hori, Bixitalako jauna, emakumez jantzita ari omen zen protestan, edo hori zabaldu zuten behintzat bere izena laidotzeko.

Gertakizun honen berri Xose Estevez historialariak jaso zuen *Matxinadas en Euskal Herria* (Nabarralde) lanean, eta hor nabarmen ikusten da Urruñakoa ez zela kasu isolatua izan.

Espanian eta Frantzian XVIII. mendeko urteak, hau da, Antzinako Erregimenaren azken hatsak, nahasiak eta gatazkatsua izan ziren. Euskal Herriko egoera egonkorragoa zen itxuraz, besteak beste, tradizio paktista eta kaparetasun unibertsala medio. Baina horren atzean, euskal gizartea geroz eta polarizatuagoa zegoen, klase sozial ertainik gabe, gehiengo txiroak gora egiteko aukerarik ez zuelako. Estevezen esanetan, "egoera estrukturala pil-pilean zegoela, detonatzaile txikiena nahikoa zen matxinadak eztanda egiteko". Eta piztaile horiek, Urruñan bezala, gabelak izaten



FRANTZIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

Urruñako 1750eko protestaldian emakumeak izan ziren protagonista, Ipar Euskal Herriko XVIII. mendeko matxinada gehienetan bezala.

ziren maiz, hots, gatzaren, tabakoaren eta bestelako oinarritzko kontsumogaien zeharkako zerga: zerga-biltzaileentzat kobratzen erraza, zergadun pobreei egiten zien kalte nagusiki.

XVIII. mendearen hasieran, Frantziako nahiz Espainiako koroen ahalegin zentralizatzaileak egoerak okerrera egitea eragin zuen. Hegoaldean, 1718an aduanen matxinada piztu zen, Borboiek aduanasistema erreformatzea erabaki zutenean. Iparraldean, aldiz, bereziki Lapurdiko kostaldean, urtebete lehenago iritsi zen arazoa; Utrechtoko Itunaren (1717) ondorioz, Lapurdiko portuek eragina gal-

du zuten eta inguruko sektore nagusiak, arrantzak, gainbehera egin zuen.

Garai hartako Lapurdiko matxinadetan emakumeek izan zuten protagonismoa arrantzarekin lotzen du Xose Estevezek, gizonak itsasoan zeuden bitartean emakumeak lehorrean geratzen baitziren. Baina barrualdeko zenbait kasutan ere emakumeak izan ziren altxatu zirenak: Gasteizen 1738an edo Hazparden 1784an.

Baina, Estevezen ustez, ez da ahaztu behar emakumeak ez zirela soilik gatazken protagonista aktiboak izan. Biktima ere izan ziren, Donostian 1813an, esaterako, edo Urruñan, duela 275 urte. ●

Brasilgo inauteriak bertakoak dira

Brasilgo inauteri ezagunen jatorria aztertu dute Bartzelonako, Yorkeko eta Pelotaseko unibertsitateetako adituek. Orain arte uste zen inauterietako ospakizunak europarrek eraman zituztela, eta esklabo afrikarren ohiturekin nahastuta taxutu zirela. Baina *Plos One* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, festaren oinarria Brasilen ber-

tan topatu dute. Lagoa dos Patos inguruko muinoetan duela 2.300-1.200 urteko zeramika zatiak topatu dituzte, hainbat arrain errezeta arrastoekin eta tuberkuluz, artoz eta palmaz egindako edari alkoholikoekin zantzuekin. Muino horietan egiten zituzten arrain eta alkohol festak egungo inauterien jatorria liriateke, teoria berriaren arabera. ●



RAMON MOREIRA / BOOKERS INTERNATIONAL

SASOITU

UDABERRIAN LORATZEN
AUSARTZEN NAIZ

AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Zuhaitza esnatzeaz dago, kimuak ageri dira adarretan. Gutxi falta da loraldirako, laster aro berria hasiko du, indarberrituta.

Gorputzak udaberrian zaintza berezia behar du: gibela, behazun-maskuria eta giharrak elikadura berezia behar dute. Nekea agertu daiteke eta emozioek sosegua behar dute.

Baratzeko eta lorategiko hazitegia prestatzen hastea da nire helburua. Gordeak ditut haziak, altxorak dira nirean. Hazitik landarea eta landaretik fruitua lortzeko. Eta zuk zure zaintzarako zein ohitura erein nahi duzu?

ORBURUA

Orburuak zuntz eta konposatu mikatz ugari ditu. Zinarina azidoari esker, oso egokia da gibela garbitzeko, kolesterola jaisteko eta giltzurrunari laguntzeko. Bitamina eta mineral ugari ematen ditu, ia gantzik eman gabe. Kaltzioa, magnesioa, potasioa, zuntza eta B multzoko bitaminak ditu, besteak beste, eta ahalmen alkalizatzailea du.

Zertan laguntzen gaitu? Gibelaren laguna da, propietate arazgarriak ditu. Kolesterol arazoak dituenarentzat gibela garbitzea gomendatzen dut. Gibela garbitzeak eragina du baita ere gure azalaren zaintzan.

Digestioari laguntzeko eta idorreriarri aurre egiteko baliagarria da. Inulina zuntzetan aberatsa da, eta prebiotikoa izateaz gain, asegarria da.

Orburuak giltzurrunari ere laguntzen dio, diuretikoak da.

Diabetesarentzat lehen plateran jatea gomendatzen dut, azukre-maila hobetzen du.

Nola prestatu? Orburuaren bihotza



gordirik jan dezakegu entsaladan, olioarekin. Barazki-menestran jan dezakegu; baita ere lurrinetan egosita; labearen erreta; eta urdaiazpiko eta arrautzarekin plater oso bihurtuko da. Orburuak egosi diren ura berrerabili dezakegu saldak eta zopak egiteko.

ZAINZURIAK

Zainzuriak ura dute osagai nagusi eta aberatsak dira zuntzetan, horregatik dira asegarriak. Kaloria gutxikoak dira eta bitamina eta mineral ugari dituzte, hala nola C bitamina, K bitamina, azido folikoa, burdina eta potasioa. Asparagina ere badute, diuretiko natural gisa jokatzen duen aminoazido bat, eta gorputzari gehiegizko ura kentzen laguntzen dio.

Zertan laguntzen gaitu? Gibelaren laguna da, propietate arazgarriak ditu. Giltzurrunak lanean jartzen ditu. Zuntz ugari barazkia denez, hesteetako trantsitua arautzen laguntzen du eta idorreria saihesten du. Ekitza diuretikoak dute:

potasio ugari eta sodio gutxi dutelako gertatzen da hori. Azido urikoa altua duenak kendu edo saihestu beharreko elikagaia da.

Nola prestatu? Berdeak ez dira zuritu behar, zuzenean prestatu ditzakegu plantzan, lurrinetan, zartaginean edo barazki kremen.

Zuriak zuritu eta egosi egin ditzakegu, bai lurrinetan bai uretan (5-10 minutu). Erreta ere presta ditzakegu, edo salteatuta, edo menestran. Barazki kremen ere jar ditzakegu.

KARDUA

Orburuaren ezaugarri oso antzekoak ditu. Bereziki gomendatzen da gibela zaintzeko eta diabetikoentzat. Kardua inulina zuntzean aberatsa da eta ur ugari du. Bitamina eta mineral ugari ematen ditu, ia gantzik eman gabe. Kaltzioa, iodoa, burdina, potasioa eta B multzoko bitaminak ditu, besteak beste, eta ahalmen alkalizatzailea du.

Zertan laguntzen gaitu? Gibelaren laguna da, propietate arazgarriak ditu eta kolesterol arazoak daudenean gibela garbitzea gomendagarria da. Gibela garbitzeak eragina du gure azalaren zaintzan. Behazun-maskuriari ere laguntzen dio.

Digestioarako eta idorreriarri aurre egiteko lagungarria da, baina haizeak sortu ditzake. Inulina zuntzetan aberatsa da.

Giltzurrunari laguntzen dio, diuretikoak da. Diabetes planetan gomendagarria da.

Nola prestatu? Egosita presta ditzakegu, oliba olio eta berakatzekin. Urdaiazpiko eta arrautzarekin plater oso bihurtuko da.

TXIKORI BELARRA

Mikatza, diuretikoak eta apetituaren estimulatzailea, txikori belarra lagungarria da udaberrian. Gibela eta giltzurrunen zaintzarako botikinean dut beti. ●

A ZE FAUNA!

GAUEKO KANTARI
BAKARTIA

IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Nekazal eremu lehor baten erdian ageri da putzua. Txikia da tamainaz, eta ez oso sakona. Egunak dira euririk egiten ez duela, baina oasi txiki honek oraindik ere aurretik bildutako urari eusten dio. Gauak eremua irentsi du eta isiltasunaren erdian kantu bakarti bat entzun da. Kantu bakarti eta oso berezi bat: apo pikart europar arra emeak erakarri nahian ari da.

Negu amaieran edo udaberriaren hastapenean hasi ohi da apo pikart europarraren ugaltza, baina eurien eta putzuen egoerara ondo moldatzen den espeziea da. Gaueko baldintzak egokiak direnean joango dira arrak putzuetara eta une hori izango da anfibio hau ikusteko momenturik egokiena. Izan ere, nahiko espezie lurtarra da eta egunean zehar babesguneetan gordeta egon ohi da. Ezaugarri horiekin, beraz, ez da es-

pezie ikusterraza. Hori gutxi ez eta, bere tamainak eta koloreak ere ez dute lagunduko. Helduek 4,5 cm baino ez dituzte hartuko eta nabar-gris kolorekoak izan ohi dira, gorputz osoan banatzen diren pikart eta orban berde biziak. Gaua, kolorea eta tamaina, hirurak batuta, beraz, apo pikart europarra ezkutuan ibili ohi da, bere bizitokian: eremu lehorretako nekazal eremuetan edo gunee mediterraneoko sastrakadietan.

Bere kantuak, ordea... bere kantuak jarriko du agerian apoa. Berezia baita. Ezberdina, beste kantuekiko. Karraska errepikakor, ahul, mantso eta grabea dela diote liburuek. Horrela esanda, ordea, zaila da buruan kantuaren soinua jartzen. Horregatik, beste batzuek bi kaniken arteko talka baten modukoa dela diote. Bi kanika, behin eta berriz eta abiadura azkarrean, elkarren kontra jo-

APO PIKART EUROPARRA

Pelodytes punctatus

TALDEA: Ornoduna / Anfibioa.

NEURRIA: 4,5 cm.

NON BIZI DA? Eremu mediterraneoan, batez ere.

ZER JATEN DU? Ornodun txikiak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

tzen ariko balira bezala. Kontuak kontu, kantuak kantu, behin entzunda ez zaizue berehalakoan ahaztuko apo pikart europarraren kantuak.

Arestian esan bezala, eremu mediterraneoko hainbat habitatetan topatuko dugun animalia da. Horregatik, Euskal Herrian Araba eta Nafarroa hegoaldean baino ez da topatzen. Ebro bailara inguruan populazio politak dituen espeziea da, nahiz eta populazio horiek ez diren dentsitate handikoak izaten. European eremu zabala hartzen du: Iberiar penintsulan, Frantzia eta Italia ipar-ekialdean, kareharrizko eta igeltsuzko lurzoruko eremuetan, batez ere.

Ornogabe txikiak jan ohi dituzte helduek batez ere, eta badirudi koleopteroak direla gustukoak dituztenak, nahiz eta ikerketa gutxi egin den horri buruz eta oraindik ere informazioa falta den. Zapaburuak direnean, beste espezie askok bezala, esekiduran dagoen material begetala jaten dute. Zapaburu horiek putzuan dagoen landare artean jartzen dituzten arrautzetatik ateratakoak dira.

Espeziearen mehatxu handienetako bat bere bizilekuaren suntsiketa da. Putzuak eta bere inguruak kontserbazio egoera onean mantentzea ezinbestekoa da, baita urmaelen arteko lotura habitat egokien bidez ziurtatzea ere, korridore ekologikoen bidez.

Euskal Herriak duen ekosistema dibertsitatearen barruan, apo pikart europarrak askotan ahaztu edo gutxiesen dugun eremu lehorrean du bere bizilekua. Sastrakadi mediterraneari eta inguruko putzuei kasu gehiago egin beharko diegu, etorkizunean gaueko kaniken talka soinua entzuten jarraitu nahi badugu... ●



ABARKAK ASTINTZEN ZITUEN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

bon galdezka etorri zait Bizibaratzea.eus webguneko kontsultategira. Uda aurre horretan artoa (*Zea mays*) eta baba gorria (*Phaseolus vulgaris*) erein nahi ditu. “Arto” hitza grekotik dator eta oinarrizko jakia esan nahi du, artoa = ogia; arto edo panizo edo mileka. Baba gorriak ere, babak, alegia, izen ugari du: babarrun, baba erroma, indaba, mailar, leiko, habu, marikol, indirar, banabar, baba-nabar, gallego-baba, txandrama, potxa eta judu-arima behintzat bai, gure elikaduran izan duen garrantziaren arrasto.

Garrantzi horrek arta-babarrun soroa izango dena ziprizzintzen du. Eta kezka; kezka ugari: hazia ongi apartatuko ote genuen, lurra nola prestatuko dugu, simaurra garaiz onduko al da, kisurik eman beharko ote diogu, noiz izango da ereintzarako egunik onena, arto eta babarrun haziak batera botako ditugu ala lehenik artoa eta hura haztean babarru-

na, beleek artaleak lurrazalera atera eta jan ez ditzaten zer egingo dugu...

Ibonek bi kezka zituen. Lehena: “Arto eta baba gorria ereiteko lurra goldatzea komenigarria da edo txikituta nahiko?”; eta hau erantzuna: “Goldatu beharrik ez zagok, eta egungo goldatze sakonak mesede baino kalte gehiago egiten dik. Beraz, lurra azalean txikituta nahikoa duk”. Bigarrena: “Simaurra ordezkatu dezaket kare bizi granulatuarekin?”; eta haxe erantzuna: “Bestetik, simaurra ez dik sekula ordezkatu kareak. Biak ongarriak dituk, baina simaurra ongarri organikoa duk, bere ontze bidean mikroorganismo eta makroorganismo aberastu dena. Simaurrak landarea elikatuko duten gai asko ematen zizkiok lurrari, eta batez ere lurrari bizia ematen zio, organismoak sustatzen baitu. Kareak, aldiz, elikagai soil bat duk, kaltzioa, eta lurra azidotu beharrean azidotetasuna kendu egiten zeok.

Azken lan hori oso baliagarria duk lur buztintsu astunetan, hezetasun handia dutenetan eta simaur asko erabiltzen dutenetan. Beraz, ezin dik ordezkatu batek bestearen lana. Biak erabili behar dituk, beti batetik bestera ilargialdi baten, hila-bete baten tartea errespetatuz”.

Lurraren bizia eta osasuna gero eta kezka zabalduagoa dira erantzukizunez ari diren nekazari arduratsuen artean. Planeta osoaren %1 erabiltzen dugu gure elikagaiak sortzeko, eta zaindu besterik ez dugu.

Bi ardozaleren adibide eder pareta dakart. Bat Ribera del Duero sormarkako bodega biodinamiko eta ekologiko bateko zuzendaria da. Mahastiekin hitz egiten du eta entzun; bere osasunaz galdetzen die eta zer behar duten aditu. Ez dago, ez, erotuta, bere ardoak edan dituztenek hala diote behintzat. Bestea Huescako Somontano sormarkakoa da, Otto Bestué upategikoa. “Se sacudía las abarcas” –abarkak astintzen zituen– jarri diote izena bere ardo bati. Nonbait bere aitona zenak, mahastiko lanak amaitu eta etxe aldera abiatzen zenero mahastitik atera aurretik abarkak astintzen zituen, “lur ontzatxo bat bera ere ez du galdu behar mahastiak, lurra urrea da” esaten omen zuen. Haren lurra errespetatu eta zaintzeko pentsamolde horren omenez dator ardo hori. Hori bai, dastatu dut eta emozio berezia dakar berarekin, igartzen zaiona.

Gu, bitartean, gure mundu desastre hau elikatzen. Duela ez asko gastronomian lan egiten duten sukaldari eta kazetari batzuekin hitz egiten, eta nioen nola denon lana den lurra eta elikadura osasuntsuak ezereztan dituzten oximoronak deseraikitzea: “kapitalismo berdea”, “nekazaritza industrialia”, “janari azkarra”, “janari zaborra” eta abar. Ondoren lurrari eta landareei galdetu: Zer moduz zaude? Zer behar duzu? ●



ZIMINTTERE

SUKALDEA EMAKUMEEN JAKINTZAK PARTEKATZEKO BOTERE ETA PLAZER ESPAZIO DENEAN



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



Ziminttere hitzak hazitegi esan nahi du, Uribe eskualdean. Hauxe da ikastaroen afixa.

Emakume bakoitzaren errelatotik abiatuta, lurrari eta elikadurari buruzko jakituria kolektibizatu eta sukaldeko iruditegia irauli nahi ditu Ziminttere proiektuak, mahai baten bueltan, sukaldean bertan eta elikagaiak eskutan darabiltzaten bitartean. Ikastaro praktikoa hau "jendartea elikaduratik iraultzeko tresna" izan daitekeela pentsatzen du Haizea Bengoetxea Ziminttere proiektuko kideak: "Lurretik eta elikaduraren ezagutzatik gero eta urrunago gaude eta gero eta dependenteago bihurtzen gara, eta elikadura burujabetzaren beharra nabari da. Egunerokotasunean sukaldatzen dugu eta elikatzen gara, momentu horri kontzientzia emanez gero, botere espazio bilakatzen dugu. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeak elkartu, eta sukaldean egin bitartean elkarrekin dinamika eta gogoetak egiteko espazioak sortzea, modu kolektibo horretan ditugun errelatoek indarra hartzen baitute eta elikadura kate guztiaren inguruko hausnarketara baikaramatzate".

NON ETA NOLA

Martxo eta ekaina bitartean Bizkaiko hiru eskualdetan egingo dute ikastaroa: Arratian, Bilbon eta Uribe Kostan; eta ondoren, ikastaroan parte hartu duten emakume guztiak Fikan elkartzeko dira, Olatxuko Laboreak proiektuaren etxean, elkarrekin hausnartu eta bazkaltzeko.

Ikastaro bakoitza hiruna orduko hiru

tailerrez osatuko da. Lehen tailerrari "haziera" deitu diote, eta emakume bakoitzaren errelato, jakituria eta lurrarekiko loturari emango dio presentzia: "Elikadurarekiko dugun harremana jarriko dugu mahai gainean", Bengoetxeak azaldu duenez. Bigarren tailerrari "beharretik plazerera" eman diote izena, eta helburutzat jarri diote "sukaldearen iruditegia iraultzea. Indargune moduan irudikatu nahi dugu, espazio boteretsu eta plazereragile moduan". Elikaduraren ezagutzak eta kontrolak duten boterea landuko dute. Hirugarren tailerra "lokala globala da" izenekoa da, eta merkatuko interesetatik aterako dute elikadura: "Elikagaiak ekoizteko era, eredu, elikatze era, kontsumitzeko erari buelta eman eta elikadura burujabetzaren beharra azpimarratu nahi dugu".

Ikastaro bakoitza hamabi emakumez osatuko da, eta gizarteko aniztasuna presente egotea desio dute: "Landa eremuko emakumeak, hiritarrak, adin eta jatorri antzekoak... denok elikatzen gara eta ariketa kolektibo horretan denon begirada da inportantea". Ikastaroan izena emateko ziminttere@gmail.com helbidera idatzi behar da edo +34 605743966 zenbakira deitu.

BI PROIEKTU AGROKOLOGIKOREN ELKARLANA

Ziminttere proiektua bi ekoizpen agroekologikok elkarlanean sortu dute: Txaramela eta Olatxuko Laboreak. Txaramela bi emakumek osatzen dute eta pasta

agroekologikoa ekoizten dute: errotak eta gari zaharrak berreskuratzeko ikuspegitik abiatuta hasi ziren pasta lantzen eta errotari zaharrekin egiten dute lan. Olatxuko Laboreak barazki kontserbak ekoizten ditu, dibertsifikazioan oinarrituta: badituzte soroa, fruitu arbolak, fruitu txikiak eta obradore txiki bat. Bi proiektuek antolatzen dituzte tailerrak, eta Ziminttere proiektuan elkartu egin dira formazioa elkarrekin emateko.

EMAKUME LABORARIEN ARTEKO SAREA

Emakume laborarien funtzioaz galdetuta, Bengoetxeak gai hori laborantza ereduari oso lotua ikusten du: "Nekazartzan gauden emakume gehienon eredu agroekologikoa eta dibertsifikatua da, horrek ematen digulako bizigarritasuna eta bizi ahal izateko aukera. Eredu agroekologikoetan emakumeen presentzia nabarmena da. Eskualdean ezagutzen ditudan emakume laborariok dugun beste ezaugarri bat da saretuta lan egiten dugula hein handi batean". Azaldu duenez, pandemian Uribe Butroeko sarea sortu zuten eskualdean, salmenta zuzeneko espazioak debekatu zituztenez, elikagaien merkaturatzea antolatzeke. Gaur egun jarraitzen dute sare horretan elkar zaintzen eta salmenta zuzena etxez etxe eskaintzen. Astero elkartzeko dira eskariak antolatzeke. Horrez gain, Arratian IGITIE agroasanblada ere badute eta bertako kide da Txaramela. ●

ADIMEN ARTIFIZALA ZINEMAN

LEGEZKOA BAI, BAINA BIDEZKOA?

Geroz eta ekoizpen gehiagok baliatzen dituzte teknologia berriak, izan plano orokor eta jendetsuak figurante bidez egitea aurrezteko, izan efektu bereziak are azkarrago egiteko. Azken urtean, dena den, Euskal Herriko zine-aretoak gehien bete dituztenetako bi pelikulek adimen artifiziala erabili dute aktore printzipalen arteko solasaldietan. Legezkoa bai, bada, ez dagoelako kontrakorik dioen araudirik. Baina bidezkoa al da?

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Hollywoodeko akademiak Oscar sariak banatuko ditu Euskal Herrian martxoaren 2tik 3rako gauean. Munduko zinema industriako foku guztiak horra begira ipini ohi dira urtero-urtero, eta, ia beti bezalaxe, bada zeresana ematen ari den gairik. Ez dira inoiz arrazoiak falta eztabaidak sustatzeko; baina inori mesede egiten badie polemikoak izatea Oscarretara doazen hainbat ekoizpen edota aktore, irabazten ateratzen direnak Oscarrak beraiek dira. Funtsean, marketinerako estrategia bat gehiago baino ez dira-eta.

Handizkatuta dator *Emilia Pérez* filmari buruzko polemika. Aktore protagonistaren bueltan ardaztu da eztabaida. Karla Sofia Gascón aktoreak duela bostbat urte Twitterren egin zituen hainbat txio arrazista, onartezintzat jotzeko modukoak, eta harrigarriki, filma zabaltzeaz arduratzen den Netflixek berak ere “oso larrizat” jo ditu. Harrigarria dela diogu, ez baita estreinako aldia halako gauzak gertatzen direla, baina ez da normalean neurri zorrotzik hartzen; izango du zeri-

kusirik kasu honetan aktorea emakume transexuala izateak. Azkeneko, Sofia Gascón promoziotik kanporatu dute, eta aktoreak berak ez joatea erabaki du Espainiako Goya eta Erresuma Batuko Bafta sarietara, izendatuta egon arren. Orain, emakumezko aktore onenaren Oscar saria jasotzeko hautagaia da, baita film onenarena eskuratzeko ere.

Bigarren plano batean igaro dira *Emilia Pérez* pelikularen inguruko bestelako hainbat kontu. Esaterako, Mexikon kokatzen den filma, Mexikora joan gabe eta lantaldean mexikarrik eduki gabe oso-osorik Europan grabatu dutela, eta hizkuntza bera ondo kontrolatu gabe. Baina Hollywoodek ez dio horri apenas garrantzirik ematen. Azken Donostiako Zinemaldian *Modi. Three Days on the Wing of Madness* pelikula aurkeztu zuen Johnny Depp; duela ehun urteko Parisen kokatzen den istorio osoan, %1 entzuten da frantsesa, eta ia guztia da ingeles estatubatuarra. Halaxe dira kontuak.

Dena dela, kokalekuena-eta baino dezente gehiago –baina aktorearen

mezu arrazistak baino gutxiago– aipatu da *Emilia Pérez*-en post-produkzioan adimen artifiziala erabili dutela. Pelikularen soinu nahasketaz arduratu den pertsonak aitortu duenez, Respeecher programa erabili dute “hainbat elementu musikal eta bokal doitzeko”, hala nola Sofia Gascónen ahotsa kantura hobekiago egokitzeko –pelikula musikala da–, eta horretarako Camille abeslari frantziarraren kantatzeko era hartu dute oinarri. Horrez gain, Selena Gómez eta Zoe Saldaña ere aktore diren pelikulan, bi horien ahoskera hobetu dute adimen artifizialarekin espainolez mintzatzeko. “Kontrolatzen ez duten hizkuntza batean hitz egitea ez da erraza, gidoia ikasita eduki arren, eta naturaltasun gehiago ematea lortu dugu AArekin”, adierazi du soinuaz arduratu den ekoizleak.

THE BRUTALIST ERE, ANTZERA

Ia lau ordu irauten ditu Brady Corbet zinegilearen film berriak. AEBetan dago kokatuta, Adrien Brodyk gorpuzten du László Toth protagonista, sortzez hungariarra eta judua den gizona, Atlanti-



The Brutalist



Emilia Pérez

koaz bestaldera emigratu berri duena Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gutxira, familia atzean utzita. Arkitekto ezaguna zen Hungarian, baina migratzaileen iraganari kasu gutxi egiten zaionez, kostako zaio asko burua altxatzea.

Pelikula handia da *The Brutalist*. Bafta sarietan pelikula onenaren premia ez ezik, aktore onenaren garaikurra ere jaso du Brodyk, eta testuinguru horretan helduko da Oscar sarietara. Kritikagile ugari pelikularen gaitasun narratiboa ari dira nabarmentzen, eta ez da, zentzu horretan, motiborik falta.

Akaso behar baino zeresan gutxiago ematen ari da adimen artifiziala erabili dutela post-produkzioan. Elkarrizketa batzuetan sartu dute eskua: László Tothek (Adrien Brody) zenbaitetan hungarieraz hitz egiten du familiarekin, eta Brody aktore estatubatuarrek ez daki hungarieraz mintzatzen, ezta bere emaztearena egiten duen Felicity Jones aktore britaniarrak ere.

“Hungarierazko gidoiak goitik beherraino bikain ikasi dituzte”, irakurri diogu filmaren zuzendari Corbeti Hollywoodeko hedabide bati eskainitako elkarrizketan, eta zera esanez justifikatu du: “Teknologia horiek erabili ezean, aktoreak entzungo genituzke hungarieraz, bai, baina azentu ingeles estatubatuar edo britaniarrarekin”. Solasaldi horietan ez ezik, adimen artifiziala erabili dute, besteak beste, irudi batzuk sortzeko, zehaztu gabeko hainbat estruktura eta marrazki sortzeko. Hori guztia, zuzendariaren esanetan, nahi baino aurrekontu apalagoa eduki dutelako eragin dute.

Artikuluari bi film seinatu badiara ere, azken urtean Euskal Herriko zine aretoetatik igaro(ko) diren ekoizpen ugari erabili dute adimen artifiziala. Adibidez, *Dune 2* filmeko ekoizleek aitortu dute CopyCat erabili dutela Fremenen begi urdinen erreplikak egiteko; Bob Dylanen ibilbidea fikziotik kontatzen duen *A Complete Unknown* pelikularak Revize erabili du, plano batzuetan protagonisten bikoizleak hobeto ordezkatzeko; *Here* pelikulan, berriz, Tom Hanks eta Robin Wright gazteagotzeko erabili dute teknologia; eta *Alien: Romulus*-en, azkenik, efektu bereziak egiteko.

AA-REN ESKUA SARITZEN DA?

Bai Adrien Brody (*The Brutalist*) eta bai Karla Sofía Gascón (*Emilia Pérez*) gizonetzko eta emakumezko aktore onenaren Oscar sarirako hautagaien artean daude. Sariak diogen bezala, haien antzezpena da baloratzen dena, eta hain justu ere AA erabili dute haien antzezpenak –ahotsak, kasu bietan– hobetzeko. Aintzat hartu beharko litzateke? Horixe da eztabaidagaia.

“Pelikula honetan [*The Brutalist*], orain arte egiten ez genuen ezer ez dugu egin AArekin”, irakurri diogu Redshark hedabidean David Jancsó ekoizleari: “AA gabe, oso erabilia den ProTools audio softwarearekin egingo genukeen egin duguna [hungariar azentua hobetzea], baina prozesua azkartzeko, zeren solasaldi asko daude hungarieraz, teknologia berriak erabili ditugu”.

Eztabaida putzu sakonagoetara eramandu Jancsó: “Ikusle arruntari axola

zaio aktoreek hungariar perfektu batean hitz egitea? Detaileak hobetzea baino ez da izan gure asmoa. Azentu ikaragarri txarrak heldu izan dira urteetan Oscarretara”.

MUGATUKO DA ERABILERA?

Behin aurtengo Oscarren sari banaketa igarota, litekeena da akademia estatubatuarrek ohar bat kaleratzea edota barne-araudian punturen bat aldatzea, zinema arloko hedabide batean baino gehiagotan irakurri dugunez. Baina ez da askorik espero.

Gaur egun, Hollywoodeko zine-akademiak bere produkzioei proposatzen die formulario bat betetzea, jakinarazteko ea AA erabili duten eta zein sekuentzia edo eszenatan. Baina hautazkoa da betetzea, eta jakina, baita zehaztasunak ematea ere. Gero, gainera, formulario hori publiko egitea ekoizle bakoitzaren eskuetan geratzen da. Sarean irakurri dugunez, baliteke formulario hori, aurrerantzean, derri-gorrezkoa izatea.

Lohia guztia azpian bi lobby handi leudeke elkar-joka, eta biak estatubatuarrek dira. Alde batetik geneukake hainbeste milaka milioi dolar mugitzen dituen Hollywooden industria, eta bestetik, AEBetako Gobernuaren eta inbertitzaileen gero eta babes handiagoa duen AAren sektorea, Silicon Valleyko munstroa. Pentsaezina litzateke pare borrokan ipintzea, interes ugari ere elkarrekin baitaizkate. Hortaz, ez espero ezer Hollywooden partetik (oraingoa ere). ●



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1						■									
2					■										
3									■						
4		■								■					
5	■					■									
6					■										
7								■							
8								■							



EZKER-ESKUI:

- 1. Su etena. / Argal, estu. 2. Burdina erakartzen duen harri. / Hodeietatik erortzen den ura.
- 3. Begitarte, musu. 4. Argazkiko herria (Bizkaia). 5. Altua, garaia. / Zapata. 6. Mentura, patu. / Higiarazi, mugiarazi. 7. ... eman, doan eman. / Laztu, aberetu. 8. Ur gaziko eremu handi. / Pertsonak, gizasemeak.

GOITIK BEHERA:

- 1. Katuaren oihua. / Zerezko atzizkia. 2. Hegazti mota. / Gauerditik eguerdira. 3. Nafarroako herria. 4. Beste herrietan bere nagusigoa hedatzen duen potentzia. 5. Abagune, aukera. / Radonaren ikurra. 6. Nafarroako ibaia. / Aho gaixotasun. 7. Lurrazaleko goraguneak, mendia baino txikiagoak. 8. Zerbait egitera bultzatu. 9. Zu. / Bere baitan zerbait gordetzeko objektu.
- 10. Euskal Artisten Elkarte. / Da, haiei (alderantziz). 11. Bangladeshko diru unitatea. 12. Tamaina handiko hegaztiak. 13. Kausa. 14. Zailtasun handiz. 15. Kalabaza (alderantziz).

Sudokua

ERRAZA

		7	2			8	1	6	4
4	1		6	2	5	8	7	9	
8		9					3		
3	9	1	7		4				
6	2	8	5						
			2		3				
		6	1		7	3	5	8	
1	3	7			6		9	2	
9		5			2	6	1		

ZAILA

4		9	5	7					
	6			4			8		
7	3	2			9		4		
9						1	6		
6	1			4					
8	2	7		1		3			
3									
	4	5	8					1	
					2	6			

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.

			■					
			■					
■				■				■
					■			

Word puzzle pieces:

- NT, K, KO, E
- A, N, A
- R, U, S, I, Z
- AS, GI, A
- Z, U, E, N, D, K
- E, N, D, A, T

Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Kasa, kontura	KABUZ
Osagai bakarra duena	
Txartela	
Baizik	
Bakoitzak bost	
Sorbalda, bizkarra	
Urrin	
Sama, lepoa	
Asiako estatua	
Haur txikia	
Nereida	
Azken proba	
Ur gezako arraina	LOINA

EBAZPENAK

ASKO ZOR IZATEN DU ASKO AGINTZEN DUENAK

ATSOITZIA
LOINA
FINAL
NINFA
NINIA
INDIA
IDUNA
USAIN
SOINA
BOSNA
BAINO
BONUA
BAKUN
KABUZ

1	9	8	8	8	1	7	5
2	4	5	8	5	6	7	3
3	7	6	6	5	1	4	2
4	2	7	6	1	5	3	9
5	1	3	7	9	4	8	5
6	5	4	3	2	8	1	6
7	3	2	1	8	9	5	4
8	6	1	2	4	3	7	8
9	4	8	9	5	7	6	2

ZAILA

9	8	5	3	4	2	2	6	1	7
1	3	7	8	5	5	6	4	9	2
2	4	6	1	9	7	3	5	8	
3	9	1	7	8	4	5	7	2	6
4	2	8	5	1	9	7	4	3	
5	6	9	4	7	1	2	3	5	
6	9	4	7	1	2	3	5		
7	2	9	3	8	1	6	4		

ANAGRAMAK

ERRAZA
AUK:
EIAZ, 11. TAKA, 12. ARAK, 13. KARI, 14. OZTA, 15.
KIO, 7. MUNIOAK, 8. ERAGIN, 9. HI, ONTZI, 10. EAG,
GOIZ, 3. NARBARTE, 4. INFERIOA, 5. ERA, RN, 6. EGA,
GIZAKIAK, GOITIK BEHERA: 1. MIAU, ZKO, 2. EMU,
ZORI, KANTIRAZI, 7. KITORIK, ZAKARTU, 8. OZANO,
3. AURPEGIA, 4. BERANGO, 5. GARA, OINENTAKO, 6.
ESKER-ESKUI: 1. MENIA, MEHE, 2. IMAN, EURIA,



Lete ravero bat Iruñean

GORKA INTXAUSTI ARANGUREN

L arunbat goiza Iruñean. *Neguko eguzkitan lanera doazen gizon* – eta ez gizon– *bakarti* batzuk bai, baina, batez ere, turistak eta despedidak eta Osasuna eta Real Madrileko kamisetak eta jendea ingelesez eta frantsesez eta ulertzen ez ditudan beste hizkuntza batzuetan berbetan. Egun Motelak kolektiboak antolatutako zazpigarren kontzertua dela-eta bertaratu naiz, baina iritsi orduko konturatu motela, motela... ez dela izango. Ur azpian igeri dabilenak arnasa hartzeko nola, alde zaharretik eta kamera daramaten pertsonengandik urrundu naiz arratsaldean, iluntzean berriz murgiltzeko.

Iruñeko ZZE Zuk Zeuk Egizu kolektiboak Aitzina taberna aukeratu du hitzordurako, eta goiz bertaratu gara kuadrillatxoak. Taberna ezagutzen nuen, baina sotoa ez: upategi itxurako areto ilun eta txikia. *Zirritoki* bat. *Hemen zerbait gertatzen bada...* pentsatuz, baina sabelean kili-kiliak ditugula sartzen ga-

ren horietakoa. Giroari dagokionez, denetariko jendez lepo dago lekua. Ez da harritzekoa kartela ikusita. Gero esango digute *euskal musika* genero bat dela.

Hiuzzek jo du lehenengo, etxeokoa direlako. Aspalditik nuen gogoia iruindarrak ikusteko. Are gehiago abenduan *Esperoa*n lehen lan luzea kaleratu zutenetik. Talde erraza da entzuteko. Halako dardara moduko bat eragiten die 1990eko *fuzza* maite dutenen hankei, eta rocka edo popa maite duten balarriek ez diete muzin egingo kantu itsaskor hauen esentziari. *Jolasean* aritu dira aretoaren sakonean muntatu (anti) oholtzatik, eta ziur nago aurrerantzean gehiagotan ikusiko ditugula Euskal Herriaren luze-zabalean.

Bloñi buruz ezer gutxi esango dut, lorez testu hau halako hamar bete nezakeen arren. Besarkada bat entzule bakoitzaren bihotzari. Ezagutzen ez duenak irakur beza Udane Barinagarrementeria Lakak duela zenbait hilabete

HIUZZ + BLOÑ + ADUR

NOIZ: otsailaren 15ean.

NON: Iruñeko Aitzina tabernan (Egun Motelak kolektiboa).

idatzi kronika. Hori bai, isiltasun gehixeago eskertuko nukeen.

Adurrek jo du azken [argazkian]. Xabier Aguadok eta Naroa Esturok Bilbon sorturiko proiektua da, beste proiektu batean kide izan ondotik estilo elektronikogora eta soinu zikinagoetara jauzi egin izanaren emaitza. *Rave-punk folklorikoa* esaten diote beraiek. Izen interesgarria, ezta? Ba pentsa zuzenekoa. *Nekea* du izena haien bigarren EPak, eta bai, horixe eragin dezake haien kontzertu batean egon izanak. Baina lasai, ez zara damutuko. Adrenalina dosia, barrenak oihu guturalen bidez husteko. Imaginatu Xabier Lete ez-bitar bat, bekainean piercinga daramala, plataformen gainean eta Hello Kittyren kamiseta batekin, gitarra akustikoaren ordezkari elektrikoa eta distortsioa jarrita, baina txapela buruan. Hartu hori guztia eta jar iezaiozu *DnB* edo *techno* base bat, gogorra. Halako zerbait da Adurren abesti bat. *Ez zaidazu galdetu*, joan eta entzun. ●



LIBURUA

Arriskuen aurrean, Ernaux



**IDAZKETA
LABANA BAT DA**
ANNIE ERNAUX
ITZULPENEA: LEIRE LAKASTA
KATAKRAK, 2024

BESTIAK LIBURUTEGIA

Klinikoa, zorrotza, politikoa, intimoa, autobiografikoa. Horrelakoak erabili izan dira maiz Annie Ernauxen lana eta idazketa estiloa deskribatzeko; goraiatzeko batzuetan, epaitzeko beste zeinbaitetan. Bada, etiketa zurrinak hausnarketa konplexuz gainditzera dator euskarara heldu zaigun bere azken lana. Leire Lakastak itzulia eta Katakrakek argitaratua, *Idazketa labana bat da* liburuak 2001. eta 2002. urteen bitartean Annie Ernaux eta Frédéric-Yves Jeannet-en arteko hartu emanaren lekuko izatera gonbidatzen gaitu. Bigarrenaren galdera zuhur eta lehenaren erantzun zintzoek lagunduta Ernauxen “kontzientzia literarioan” murgiltzen gara.

Autorearen obran zentralak diren gaiak etengabe errepikatuko dira bi idazleen arteko e-mail katean. Bere lana irakurri duenari, ziur, hurbileko egingo zaizkio: *ni*-aren ulerkera soziala, erreala den horren presentzia, edota idazketaren formaren auzia. Gai horiei heldu eta testu bukatuaren atzean dauden hausnarketa eta nahiak ezagutzeko aukera ematen digu liburuak. Aukera ematen digu ulertereko baita formak eta kontaktzen denak elkarri zein modutan eragiten dioten ere. Ernauxen lanean ezinezkoa baita *ni*-a mahaigaineratzeko modua errealtatea eraldatzeko nahietik eta bere dimentsio sozialetik banatzea. Era berean da ezinezkoa testuaren zein idazkeraren forma idazlearen intenzionalitatetik apar-

te ulertzea. Finean, Ernauxek idazketaz duen ulerkera politikoak ehuntzen du dena, eta hari horri tiraka, gogoeta umil bezain zorrotzak dakarzkigu testuak.

Hogei urte joan dira harreman epistolarrak hura izan zutenetik, eta Ernauxek beste hamaika liburu ondu dizkigu ordutik. Gizartea eta panorama literarioa zeharo aldatu diren arren, autorearen eragiteko nahiak piztuta dirau. Faxismoaren gorakadaren aurrean geure buruari egin beharreko galdera ezinbestekoa botatzen digu: “Zer bitarteko erabil dezaket arriskuen gorakadaren aurrean kontzientzia kritikoa pizteko?”. Erantzuten ere ausartuko gara agian: jarrai dezala berak labana zorrotz idazten, eta guk begiak erne bere lanak irakurtzen. ●



MUSIKA

Zuloa zen irteera



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



ZULOA

MERINA GRIS

SONIDO MUCHACHO, 2025

XALBA RAMIREZ

Euskal Herrian ez da orain arte horrelako musika elektronikorik egin. Esango nuke Merina Grisek historian euskaraz egin den elektronika eta hyperpop diskorik landuena egin duela. Ez hori bakarrik, *Zerua Orain* lanaren ildo bera jarraitu du, konposaketan jauzia eginez. Estribillo gutxiago, eta narratiba indartu batekin.

Bikote harreman baten osteko dolua du abiapuntu eta helmuga *Zuloa*-k. Horretarako, doluaren zulo ezberdinetatik pasatzen da, harik eta bukaeran, Anarik jaso zuen ondoriora heltzeko: “Beti zuloaren beldur, eta zuloa irteera zen”.

Irteera kantak, hain zuzen, Pixiesen *Where is my mind* dakar gogora eta nik *Fight Club*-eko azken eszena berpizten dut: eraikinak lehertzen eta mundua pikutara bidaltzen, eskutik helduta. Baina, oraingoz, hemen, irteerak indibidualak dira: “Beldurrak bizia salbatu ahal dizu, baina zaude ziur bizitza galduko duzula”.

Titular bat irakurri nuen orain gutxi esaten zuena gaur egun desamodioagatik gehiago sufritzen zela beste garaietan baino, eta dolua heriotzarena baino handiagoa dela. Ez da guztiz arraroa. Heteroarauak izugarritzko lur emankorra du gizarte indibidualista muturreko honetan. Bikotekidearekin proiektua amaituta, amaituta zure esperantzen erdiak, zu zeu zarenaren zati handi bat. Gehituo zu garapen pertsonalaren diskurtso neoliberal eta heldulekurik gabe zaude.

Merina Grisekoekin komentatu nuen aurreko batean, artista asko dabiltzela norbere osatze prozesuak bihurtzen diskoetarako material. Zilegi, eta, askotan, eder izateaz gain, dolua gaintzeko kontakizunez gain, maitasuna bizitzeko kontakizunak garatzearen beharra faltan botatzen dut. Desiragarriak diren munduak eraikitzeko. Zein da belaunaldi honen egiteko historikoa? Ez al dio, Juana Doloresez gain, artista bakar batek ere galdera hori egin behar bere buruari?

Egun, badirudi ez dagoela elkarrizketa bat ekoizpen artistikoaren artean, ez bada kompetentzia terminotan. Uste dut hor badela zer edo zer: enpresa hizkuntzak jan digu hizkuntza marxista (jar dezakezu hemen zuri hobeto datorkziun beste *-ista* bat). Musikariok beste modu batean pentsatzen jartzeko unea iritsi dela uste dut; eta batez ere, elkarrekin pentsatzeko, eta batez ere, musikari ez direnekin pentsatzeko.

Merina Grisek ostiko bat jo zuen mahai gainean *Zerua Orain*-eko pop zakarrarekin, nostalgia irudikatuta belaualdi galdu baten iruditeria berraktibatuz. Orain, barrura begiratu, eta minaren eta doluaren prozesua norbanakora eramanez. Hirugarren jauzia behar dugu, sintesia lortzeko, hala nahi izanez gero: belaunaldiaren baitan norbanakoak duen misio historikoaren kontzientzia hartzea.

Irten gaitezen zulotik. ●

Aldameneko tabernaren terraza anexionatzeaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Herrian badago kale bat –turistei lehenbiziko emaitza googleroetan ateratzen zaien huraxe–, tabernaz beterik eta autore-pintxoeren parke tematiko bihurturik daukaguna. Handik pasatzen naizen bakoitzean Ostatu Batuak zeharkatzen ari naizela pentsatzen dut, Cadillac-aren orde besta beste mota bateko deskapotelea erabiltzen dudana arren. Geroz eta gehiago dira, portzierto, herriaren izena googleatu eta etortzea erabakitzen dutenak, urteko edozein sasotian. Eta, beraz, 2+2 = kale horretan dagoen edozein edaritegik izan behar luke negozio esferikoa. Ez da beti hala ordea.

Poza sentitu ote nuen joan den asteburuan, taberna ostatubatuar horietako bat itxi dutela ikusi nuenean? Ez dakit, azkenaldian emozioak modu ordenatuagoan sailkatzen saiatzen banaiz ere, sentimendu batzuek gobernu onari egiten dioten oposizioarekin jotzen baitut sarritan.

Baina bueno, zuek ulertzeko, “Se traspasa” kartel hura ikusi ondoren gorputza zeharkatu zidan bibra ASMR moduko bat izan zen.

Total, taberna itxi dutela. Eta taberna itxi dutenez, tabernako terraza ere ez da gehiago existitzen. Privatizatutako espazioa berreskuratu du berriz herriak, dena da alegrantzia eta bozkario. Eguzki pixka bat atera den arte. Izan ere orduan, Ostatu Batuak jendez kokoteraino daude betiko legez, eta alboko tabernak, politika irredentista baten bitartez, mahai batzuk gehiago jarri ditu *kaputt* egin duen negozioak okupatzen zuen espazio (une batez) publikoan, demanda altua dagoelako eta, aizu, libre zegoen. Gero Trumpek Groenlandiaz esandakoekin eskandalizatuko gara. Ojo jende honen gaineko pisuan bizi bazara, igual ogi bila jaisten zarela aprobetxatuz zure balkoia ere terrazaren luzapen bertikal bihurtuko dute-eta.

Gauza hauek ez dira kasualitatez gertatzen. Eta ez da aurrefabrikatutako esaldia: Ostatu Batuak ondo armatuta daude. Aurrekoan jakin nuen, adibidez, gainontzeko sektore ekonomikoak baino askoz abila-goak izan direla transformazio digitalean. Eufemismorik gabe esateko, Tripadvisor bezalako plataformetan euren negozioen aldeko kritikak erosten dituztela, alegia. Hamar kritika positibo 35 euroan: benera zure jatetxean egon den jendeak idatzi dituela emango du eta, gutxi gorabehera, asteburuko menu baten irabazia kostako zaizu, inbertsioak merezi du.

Esaten nuen ba nik ez zela posible hainbeste jende ibiltzea borondate onez gastrotekek eta esperientzia kulinarioak gomendatzen: industria turistikoak, beste edozein industriak bezala, jarduera osagarriak sortzen ditu lehiakortasunari eusteko. Ze, bazkaltegiak promozionatzeko ezkutuko taktika horiek, era berean, erredaktoreak behar dituzte, kontu faltsuak sortu eta koordinatuko dituzten arduradunak, bezeroak zehazki zer nahi duen ulertuko duten belarriak. Eta berrikuntza, diot nik: seguru dagoeneko ChatGPT erabiltzen hasiak direla, gauzak arinago eta merkeago egiteko.

Eta bitartean, gure herri eta hirien turistifikazioaren kontrako mugimenduak analogikoki pentsatzen, bateko pankarta eta besteko iritzi-artikuluak, Ostatu Batuen flotazio-lerroari zuzenean eraso egin beharrean. Nik uste aski litzatekeela talde koxkor bat antolatzea eta teklak pixka bat mailukatuz seko kakaztea gure zenbait tabernak eta jatetxek plataformetan daukaten irudi bikaina –“hemen oso ondo jaten da” famatua–, sektorea bezeroak galtzen hasteko eta negoziatzera behartzeko. Argi daukat erresistentziaren lehen eskaria zein izan beharko litzatekeen gure herrian: alboko terraza horren gaineko burujabetza herriari itzuli. ●





 **ARGIA**

Itziar Ituño  **Gure Zirkua**

 **Go!azeneko lagunak**

 **Tapia eta Leturia**  **Gozategi**

Eñaut Elorrieta  **Olatz Salvador**

Kai Nakai  **Amets Aranguren**

Ines Osinaga  **Aitor Gorosabel**

Oinkari  **Bonberenea**

Erraldoiak  **Dragqueenak**

 **Bertsolariak**  **La Pulga**

ETA GEHIAGO!

Erosi sarrerak:
NIKEREMAITZAITUT.EUS

 **maite**  **zaitut**

FESTA  
ERRALDOIA

Bizkaia Arena - BEC!

Maiatzak 3, 2025

Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lizentzia libreekin lan egiten dugulako. Gure edukiak nahieran partekatu daitezke, kazetaritza independentea mugarik gabe zabaltzeko.

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 ARGIA

